

TOKIKOM

2011ko urtarrila | 100. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkari

100

Gotzon Barandiaran

**Idazlea,
kontraesan
bila**

BADIRA EHUN KALEAN

TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetzuko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 558 172

Faxa: 944 558 172



Zamudioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 520 826

Faxa: 944 521 349



"Txorierrri" B.H.I. (Derio)

Tel.: 944 543 258

Faxa: 944 543 262



"Gorondagane"

Herri Ikastetxea (Sondika)

Tel.: 944 531 020

Faxa: 944 531 020



Derioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 541 246

Faxa: 944 541 246



Lezamako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 55 119

Faxa: 944 555 163



MATRIKULA
Urtarrilaren 31tik Otsailaren 11ra



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Igor Urrutikoetxea, Fernando Larrondo, DAT Derioko argazki taldea, Germán Suárez, Bestorrene, Etxahun Lekue, Ander Lasa, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Salaketa-argazkia**
- 12 Gurean izan da... Arkaitz Estiballes**
- 14 Gaztea eta... Jon Goikouria**
- 16 Itzarri**
- 18 Gotzon Barandiaran, idazlea**
- 22 Badira ehun kalean**
- 26 Sua, bizi-bizirik**
- 28 Txorierri ezagutu... Lezamako ibilbidea: Elorria**
- 30 Elkarteak... Udondo dardo taldea**
- 32 Osasuna... Sendabelarrak**
- 34 Aikorrizketan... Akarra askatu**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

• PAKETERIA ZERBITZUA • BUZONEAKETAK • KARTEL IPINKETAK • MARKETIN ZUZENA • PUBLIZITATE BANAKETA •

TIPS@ ZAMUDION
Torrelarragoiti ind., P-7 B, 1. pab.
Tel.: 944-525 086
Fax: 944-525 088
sondika@tip-sa.com

ETXERAINO



© 943-59 29 50

DONOSTIA • BILBO • ANDOAIN • IRUN • ZAMUDIO

etxeraino@etxeraino.net

Nire, zure, gure eskubide sozialen defentsan

Bi urte baino gehiago igaro dira, jada, gaur egun pairatzen ari garen krisi kapitalistaren lehen zantzuak 2008ko irailean nabaritzen hasi ginenetik. Krisia hasi bezain laster, Europar Batasuneko gobernuak diru publikoa (guztiona dena) nahi beste eman zioten Bankari, espekulazio finantzarioa bultzatzeagatik egoeraren arduradun nagusia izan arren. Horretarako bazegoen dirua; Estatu espainiarrean, hain zuzen, PSOEren Gobernuak 65.000 milioi euro eman zizkion 2009an banka pribatuari.

Baina bitartean hara non politikari eta komunikabide nagusiak hasi zitzaizkigun esaten krisian inongo erantzukizunik ez genuen langileok gerrikoa estutu behar genuela. Horrela, arrapaladan, gastu soziala murriztu dute (beste gastu batzuk aurreztu beharrean; militarra, adibidez), prekarietatea bultzatzen duen eta kalera-tzea merkatzen duen lan erreforma bat onartu zuten iazko ekainean, jubilatuen pentsioak izoztu eta enplegatu publikoen soldatak jaitsi egin zituzten.

Orain ere, krisiaren aitzakiapean eta negoziatzen ari diren itxura eginez, pen-



IGOR URRUTIKOETXEA
(LABeko Nazioarteko Idazkaria)

tsioen erreforma egingo du Espainiako gobernuak, pentsioak jasotzeko baldintzak gogortzeko eta etorkizuneko belau-naldiei pentsio eskubidea ia ezinezko bihurtzeko. Hau idazteko unean, neurri zehatzak oraindik ez badakizkigu ere, badakigu zeintzuk diren asmoak: besteak beste, pentsio osoa kobratu ahal izateko kotizatu beharreko epea 35 urtetik 38 edo 40ra igo gura dute, pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den epemuga ere igo nahi dute (15etik 20 edo 25era), eta erre-

tiro adina ere 65etik 67 urtera igo nahi dute, EBko altuenetarikoa badugu ere. Eta neurri horiek, Gizarte Segurantzaren sistemak superabita izaten jarraitzen duen bitartean.

Pentsioen erreformaren ondorioz gure belaunaldiko hainbat, eta lan munduan prekarioan dauden sektoreak (gazteria, emakumeak) etorkizuneko erretiro pentsio barik geratuko gara Euskal Herrian, ezinezko izango delako jarriko dituzten baldintzak betetzea, eta berriro ere Madrilen erabaki dutelako, gure iritzirik kontutan hartu gabe. Heldu da momentua, beraz, ongi izate egoeraren seinale diren eskubide sozialen murrizketen kontra kalera ateratzeko eta aurka gaudela esateko, "Ez gure izenean!" ozen oihukatzen. Urtarrilaren 27an euskal gehiengo sindikalak deitutako greba orokorrek bat egitea da horretarako aukera bat, nire, zure, gure etorkizuneko pentsioak lapurtu ez diezazkiguten. Horrekin batera, 28an, 29an, 30ean... eta hurrengoetan ere mugitzea eta, batez ere, egunero adi egotea, engaina ez gaitzaten.



FERNANDO LARRONDO
(Irakaslea)

Panorama ederra, telebistea biztutean dagoana. Ordainpeko telebistatik harago dagoan oinarritzko eskeintzan –menuko sintonizazio automatikoak lasexatik ikusterik ez daukadan goltveraino ordenetan deustana– gatx izaten da ezeri erreparatzea.

Miseria katodikoak

Alde batetik, ugaltzen joan jakuz sasikazetariak gidatutako sasi-tertuliez beterik dagozan indar ilunek finantzatu-tako TB kanalak. Ikuslegoaren aldetik oso fin ibili ez arren, asko dira eta mezu agresiboekaz datoz. Fijazino bi daukiez: ZP eta Iparraldeko barbaroak. Honeen artean, geure-geurea dogun egunkari batek bultzatutako katea be badogu, borobila benetan, hamar bat merezi dauana. Ikusle gitxi daukaz baina, eta kexu dabil.

Non dagoz, ba, ehun urte egin dituan papera egunero zintzo-zintzo erosten daben milaka ikusle potentzial horreek? Bere egoitza lurretatik Bilbora eroan dauan kateak eskeintzen deuskun Kalifornia saio inpagableari begira? Eten

barik itaun edota lehiaketa txotxoloak eginez tarifa estratosferikodun telefono-deiak harrapatu gura dabezan saioak? Non demontre dagoz, ba? Kontu honeetan adituak diranen esanetan, Italian jaun eta jabe dan Caligularen bertsio barrituaren itzalpeko katean dagoz, bertokoek armetan daben zirkuari begira, Cirque du Beleni begira. Geurean lortzen dauz, antza, audientzia mailarik altuenak dagoaneko geriatrikoren batean egongo diran aspaldiko mamatxitxo-en kateak, Zumaian zein Bilbon, Ondarrun zein Eltziegion. Biba! Beste bat! Beste bat!...

Batek esaten eban modura, halan da eta halan kontatu dogu.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Kurutzeko traba arkitektonikoak

Diru gutxirekin konpon litekeen arazoa dute Kurutzeko auzokideak, Lezaman: pertsona ezinduek gaindiezinezko trabei egin behar diete aurre, euren kontura handik mugitu ahal izateko.

Badira 14 urte bertako bizilaguna den Bernardo elbarria dela, eta azken urteotan etxekoek hainbat bider jo dute Udalera, sufritzen duten arazoaren berri eman eta konponbidea eskatzera. Baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Ulertezina da egoera horretan dagoen pertsona batek arartekoa-rengana jo behar izatea, Udalak ez duelako aintzat hartzen erraz konpon daitekeen gaia.

Jakin dugunez, Elbarrien Elkartekoek ere txosten bat bidali diote Udalari, eta aipatutako trabak ezabatzeko egin beharreko aldaketak azaldu dituzte bertan.



Nire ustez, gaur egun Kurutzen elbarri bakar bat ez balego ere, egoera horretan egotea edonori suerta dakiokela kontuan hartu beharko luke Udalak. Beraz, gure kaleak eta zintarriak egokituta egon beharko lirake, edozein elbarri bere kabuz mugitu ahal izateko, bai bere auzunean, bai herriko edozein gunetan. Ez da ahaztu behar konponketa horietan gastatzen den dirua herritar guztion zergetatik ateratzen dela.

Obra berriak egiterakoan, aurretiaz hartu beharko dira neurriak, eta lehendik dau den oztipoak konpondu, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko.

Udala obra berriak egiten dabil Kurutze inguruan, eta egingo diren bideak, zintarriak eta abar egokiak eta erosoak izango direla uste dugu. Eta bide batez, lehendik dauden trabak ezabatuko dituztela. Horrela bada, helduko da zoriontzeko unea.

Jabi Agirre


Udondo Ostetia
★★
Mungialde etorbidea, 3
t: 94 656 49 09
www.pensionudondo.com

ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA
Txorierrri Etorbidea 9, 4. 413
a.amondarain@euskalnet.net
48160-DERIO
T./Faxa: 94 454 44 98

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrakortua doan
-Especialitatea: umeak
Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak
ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAIRUAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

Tx.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net
Txorierrri etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48160 Derio (Bizkaia)

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio
Tabiñak
Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa
Alertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 941 121
www.aislamientosderio.com

Krisia, aztergai Zamudion

Krisi ekonomiko gogorrean gabiltza murgilduta. Orain dela urte batzuk hasi zen krisia da; eta batzuek kimu berdeak ikusten badi-tuzte ere, amaiezina da askorentzat. Lagatzu Zamudioko euskara elkar-teak hitzaldi bat antolatu du otsaile-rako eta, besteak beste, krisi ekono-mikoaren zergatiak, gaur egungo egoera eta etorkizuneko aukerak aztertuko dituzte bertan. Hitzaldia Joseba Barandiaran ekonomialariak emango du eta otsailaren 15ean, arratsaldeko 8etan, izango da Zamudiotarren. Hitzaldia herritar guztiei dago zuzenduta, eta Barandiaranek azalpen errazak emango ditu, bertaratuko guztiek krisiaren gorabeherak ulertu ahal izateko. Sarrera doan izango da.



Botikak egoki hartzeko zerbitzua

Mankomunitateak lankidetzat-hitzar-men bat sinatu du Bizkaiko Farmaziala-rien Elkargo Ofizialarekin. Hitzarmen horren bitartez, zerbitzu berri bat jarri da martxan: sendagaiak dosifikatzeko siste-ma pertsonalizatua. Zerbitzua etxex etxo-laguntza zerbitzuaren erabiltzaileei dago zuzenduta; doan da eta nahi due-nak erabil dezake. Sistema pertsonaliza-tuak helburu hauek ditu: gaixotasun kro-nikoak dituzten adinekoek, edo hainbat sendagai hartu behar dutenek, botikak hartzea ez ahaztea; botikak ez nahastea; eta sendagai barik ez gelditzea.

Erabiltzaileek, aldian-aldian, kartoiz-ko euskarri bat jasoko dute euren farma-zian. Euskarriak plastikozko zuloak izango

ditu, eta bertan sendagaiak jarriko dira egunen eta hartualdien arabera (gosaria, bazkaria...). Kartoiaren atzealdean medi-kuak agindutako gainontzeko botikak idatziko dira (xarabeak, pomadak...).

Ontziak betetzeaz gainera, botikariak jarraipena egingo dio gaixoari, arazorik ez dagoela ziurtatzeko. Medikuek tratamen-dua aldatuz gero, sistema pertsonaliza-tua berria jasoko dute erabiltzaileek.

Sistemari esker, gaixoen farmakolo-gia-historia zein den jakin daiteke. Esate baterako, larrialdietako zerbitzura joan behar badira, ontzi pertsonalizatua era-matea nahikoa izango da hartzen dabil-tzan botikak hango medikuek ezagutze-ko.


hotela
jaketxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Maskara tailerra

Inauteriak berehala dira, eta gutariko asko hasi gara pentsatzen zein mozorro jantziko dugun Txorierrin antolatuko diren ekimenetan. Berbalagun egitasmo-ko lagunak ere behar horretan dabilta, eta otsailean maskara tailerra egitea erabaki dute. Tailerrak saio bi edukiko ditu: lehenengoa otsailaren 18an izango da eta bertan maskarak egingo dituzte igeltsuz; bigarrena otsailaren 25ean izango

da, eta saio horretan margoztu egingo dituzte maskarak. Saio biak arratsaldeko 5etan izango dira Larrabarri Derioko baserrian, eta Kurkuluxetan Bilboko antzerki taldearen irakasle batek gidatuko ditu. Tailerra euskaraz izango da eta edonork har dezake parte, umeek ere bai.

Izena emateko telefonoa:
635 75 35 95 (Itsasne)



Jostailu zaharren bilketa, Lezaman

Seme-alabak dauden etxeetan jostailu asko izaten dira. Horietako batzuk zahar gelditu dira, eta beste batzuk dagoeneko ez dira erakargarriak umeentzat. Askotan, jostailu berriei lekua egiteko, zaharrak armairu baten atzealdean gordetzen ditugu, edo zakarrontzira botatzen ditugu. Hala ere, jostailu zaharrak izateak ez du esan nahi apurtuta daudenik, edo beste ume batzuk ezin direnik eurekin jolastu. Lezama-ko ludotekak aukera ematen die herriko umei erabiltzen ez dituzten jostailuak, puzzleak, jokoak... bertara eramateko. Ekimenak aisialdia ludotekan ematen duten umeek jostailuok erabiltzea du helburu. Jostailuak astelehenetik eguenetara, 17:30etik 19:30era, eraman daitezke ludotekara; eta barikuetan, 17:30etik 20:00etara. Gainera, jostailuak 10 urtetik 13 urtera bitarteko umei zuzenduta badaude, horiek Gaztegunean utz daitezke.



GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBARTARITZA
Nerea Pedrosa Culo, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

HARATEGIA
ALBERTO



Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna



leiz-2da lehendakari 7 (Zamudio)

Lezamako saltokiak sustatzeko kanpaina

Lezamako Udalak diptiko batzuk kaleratu ditu eta bertan herriko saltokien eta zerbitzuen berri eman du. Zerrendak "Hemen daukazu, Lezaman bertan" du lelo-tzat. Diptikoetan denda bakoitzaren izena, helbidea eta telefonoa agertzen dira. Prentsa ohar baten bidez azaldu dutenaren arabera, 2011. urtean zehar herriko saltokiak eta zerbitzuak sustatzen jarraitzeko asmoa dute eta hainbat ekimen jarriko dute abian horretarako. "Lezaman erosteak herrian bertan sortzen duelako aberastasuna eta, ondorioz, herriak bizirik jarraitzen du", esan dute.



Bertso txarriboda, Lauroetan

Lauroeta Loiuko auzoko lagunek txarriboda/bertso afaria antolatu dute otsailaren 25erako. Afaria gaueko 9etan izango da Aurregoti jatetxean eta 26 euro balio du. Bertan Arkaitz Estiballes eta Etxahun Lekue bertsolariak arituko dira bat-batean; Bizkaiko Bertsolarien Txapelketaren txapelduna eta txapeldun ordea, hurrenez hurren. Beraz, ekitaldi zoragarria eta hunkigarria izango dela ziur

gaude; galdu ezin diren horietariko bat. Bertso afaria orain dela lau urte hasi ziren antolatzen eta edizio guztiak erabat arrakastatsuak eta parte-hartzaileak izan dira. Aurtengoa ere horrela izatea espero dute antolatzaileek. Txartelak eskuratze-ko, telefono zenbaki hauetara deitu behar da: 649 49 71 47 (Iñaki) edo 94 453 37 86 (Juantxu). Nahi izanez gero, jate-txera ere dei daiteke: 94 453 24 40.

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolantza kalea, 8 - 1.azk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 695 70 33 12

luz zamudio
ARGI APARATUAK



Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Alc-apaindegia
M^a Antonia Llodio



Txorierriko elorbidia, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

yedra floristas



Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea



IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA
Torrearragoti ind. P-8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 59 - Faxa 94 452 22 34

OSKARBI
fotografoak



JOSEBA APEZETXEA
TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

Mitologia erakusketa

Zamudioko liburutegiaren arduradunek euskal mitologiaren gaineko erakusketak antolatu dute otsailaren 7tik 19ra bitarteko. Testuen eta irudien bidez, gure arbasoen mundua, magia eta misterioa ezagutzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Pertsonaia mitologikoek ere euren lekua edukiko dute erakusketan: Basajaun, Mari, Lamiak, Galtzagorriak, Begibakar, Herensuge eta Akerbeltz, tartean.

Beste alde batetik, eta Inauteriei begira, hiru urtetik gorakoei zuzendutako tailerra egingo dute otsailaren 26an. Tailerra goizeko 11:30ean izango da.



Euskara elkartea sortzen dabilta Sondikan

Aspalditik azaldu dute sondikoztarrek euskara elkartea sortzeko gogoia. Izan ere, herrian euskaldun kopuru altua egon arren, erdara da nagusi ohiko harremanetan, ekintzetan eta abarreko egoeretan. Totoan Txorierriko euskara elkarten federazioa herritar talde batekin harremanetan jarri eta hainbat bilera egin dituzte, euskara elkartea eratzeko asmoz. Bilerak erabat arrakastatsuak eta parte-hartzaileak izan dira, eta sondikoztarrek oso pozik hartu dute ekimena. Horrela, bada, euskara elkartea sortze prozesuan dago eta egitasmoari azken ukituak ematen dabilta sustatzaileak. Sondikako euskara elkartearen partaidea izan nahi duenak telefono honetara dei dezake: 635 75 35 95 (Itsasne).

Haritz Petralanda, etxean

Haritz Petralanda gazte zamudiotarra Aranjuezeko kartzelatik (Madril) atera da urtarrilean. Gazteak 30.000 euroko fidantza ordaindu behar izan zuen kartzelatik irten ahal izateko. Zamudiotarra urtarriaren 15ean ailegatu zen herrira. Petralanda 2009ko azaroan atxilotu zuten Euskal Herriko hainbat lagunekin batera. Gazteei Segi erakundearekin harremana zutela leporatu zien Grande Marlaska epaileak.

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak.

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)


AM
Formación
y
Traducciones

- Inglesa maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitateko azterketak prestaketa, EOI...
- Hitzulpenak hizkuntza ezberdinetan

Garaioltza 120 D - Erremente 16
48196 LEZAMA - 48150 SONDIKA
T: 94 453 64 69 T: 94 453 64 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com


ATARRABI

Erremente 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Liliak loradenda, Derioko erakusleihorik ikusgarriena



Danerik paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako elkarte profesionalak lehiaketa egin du, herriko erakusleihorik onena aukeratzeko. Lehiaketa bosgarren aldiz antolatu dute aurten. Irabazlea Liliak loradenda izan da, eta bigarrena Soraya Estilistas lotu da. Hirugarrena Perea estankoa izan da; eta laugarrena, Seguros Bilbao. Sariak banatzeko, gala txikia antolatu dute urtarilean. Besteak beste, sarituak, udal zinegotziak eta zen-

bait herritar egon ziren bertan. Iván Pérez Izarren Distira lehiaketaren irabazleak ere ekitaldi txiki bat eskaini zuen.

Herriko jendeak hautatu du Derioko erakusleihorik onena. Horretarako, dendatik ibili, erakusleioak ikusi eta botoa eman behar izan dute udaletxean edo kiroldegian. Boto-emateen artean, 150 euroko bono bat, 100 euroko beste bat eta 50 euroko txartel bi banatu ditu merkatarien elkarteak. Bonookin herriko den-

detan erosteko aukera izango dute irabazleek.

"Urterik urte, gero eta denda eta jende gehiagok hartzen du parte lehiaketan, eta oso pozik gaude", esan du Iñaki Molano Danerik paraje! elkarteko presidentea. "Guztira, 21 dendak jaso dute botoren bat, inoiz baino gehiago. Mungiako lehiaketan, esate baterako, denda gutxiagok hartu dute parte, eta han hemen baino askoz denda gehiago daude".

Pozik eta lotsatuta

Amaia Rementeria Liliak loradendako jabea da, eta ez da lehiaketan lehenengo postua eskuratzen duen lehenengo aldia. "Pozik eta apur bat lotsatuta" agertu da dendaria saria jasotzeagatik. "Gabonetan gauza antzekoak egiten dituzte dendek oro har, baina ni saiatzen naiz ezohiko erakusleioak eskaintzen, eta agian horregatik herritarrek eman dute botoa nire alde", esan du Amaiak. "Aurten loradenda bera, hau da, loreak hartu ditut abiapuntutzat, eta horiek Gabonekin uztartzen saiatu naiz".

Amaiaren ustez erakusleio politikak edo ikusgarriak egitea garrantzitsua da, eta dendek zaindu behar dituzte horiek. Izan ere, "edozein dendetako aurkezpenak dira, egin ahal duzunaren edo zure negozioak dituen baliabideen irudia". Derioko lehiaketak ez die sari ekonomikorik ematen irabazleei; hala ere, jendearen esker onak erakusleioak "gogorrago" lantzerantz bultzatzen ditu dendariak.

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

elekma
URRIATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK

lehenengo markak • Prestorik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasari erabatas, 25-3 N • 48160 Lodu
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Laurieta etorbidea, 27
48160 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Lata

Besteak beste, salaketa-argazkia eta trenbidea gaitzat izan genituen Derioko Argazki-rallyan, 2009. urtean. Nire ustez, argazki honek gai biak jorratzen ditu. "Argazki originala" saria eman zioten lanari.

Argazkia: Iñaki Arangiz,
Derioko Argazki Taldea

LOIU GURENA
Unbetxiki bidea, 9
48180 Laiu
Tel.: 94 453 00 49
loiu@gurena.com

DERIO GURENA
Zeroetxe Enparantza, 5
48160 Derio
Tel.: 94 454 48 08
derio@gurena.com

INDAUTXU GURENA
Gregorio de la Revilla, 28
48010 Bilbo
Tel.: 94 444 34 04
indautxu@gurena.com

Laster TXURDINAGAN ere
zabalduko dugu egoitza

www.gurena.com

TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

-ADINEKOEN EGOITZA

-TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK



"Bertsoaren aurretik badodaz beste g

ARKAITZ ESTIBALLES | bertsolaria

Natibitate egunean bertso-saio ederra antolatu zan Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean; urtero egun horretan egiten dan legez. Arkaitz Estiballes Bizkaiko Bertsolarien Txapelketaren irabazleak saioan hartu eban parte, eta hareri zuzendutako galdera-sorta presteteko eskatu geuntsan Etxahun Lekueri. Txapelduna eta txapeldun ordea aurrez aurre egon ziran.

t: Etxahun Lekue / a: Joseba Barrenetxea

Zelan joan zan saioa Hori Baien?

Saio berezia izaten da Hori Baikoa. Egun berezia da, eta jenteak ahalegina egiten dau mahaitik jagi eta saiora etorteko. Entzuleria beroa eta esker onekoa batuten da urtero. Saioan gora-behera batzuk egon arren, goi mailako bertsoaldi batzuk joan ziran eta bai entzuleak eta bai geu be gustura geratu ginan.

Bizkaiko Txapelketan txapela jantzi osteko lehenengo saioetariko bat izan zan. Desbardintasunik igarri dozu Txapelketa osteko saioetan?

Txapelketaren eta Txapelaren gaiak urten dau saiootan, baina ostantzean ez dot bestelako desbardintasunik edo niganako bestelako exijentziarik igarri.

Kantau dodan saio gehienak ez dira saio barriak izan, aurreko urteetan kantautau nagoan saioak izan dira.

Txapela lortu ostean antolatzaileen deiak ugaritu dira?

Batez be aurreko urteetan kantautauko lekuetatik etorri jataz deiak, norma-lean baino goizago, okupautau egongo nintzalakoan. Jaialdi handi batzuetarako deiak be izan dodaz eta urte hasieratik martira arteko agendea nahiko bete-ta daukat.

Hilebete inguru pasau da Bizkaiko Txapelketako finaletik. Ze akordu geratzen jatzu?

Finaletik akorduan dodana sano polita da: saioa bera, ikasle bat kantu kide, buruz-burukoa lagun bategaz, txapela janzteko momentua, zorionak

emotera hurreratu zan jente piloa... Eta hurrengo egunetako nekea be akorduan dot. Txapelketako neke metatuaz gain alkarriketa pilo bat emon behar izan nebazan. Oporraldi txiki bat hartu neban deskantsetako.

Txapelketarako egiten dozuen lanketak badau eraginik Txapelketatik kanpo?

Egiten dan beharrak beti dau eragina. Txapelketatik txapelketara egiten dan lanketaren bitartez saltu bat emoten dau gure bertso mailak, eta horrek beste saio guztietarako be balio dau.

Finalean arpegi barri eta gazte asko egozan. Bertsogintza irakasten be egiten dozu behar. Zelan ikusten dozu Bizkaiko bertsogintza?

Nahiko osasuntsu ikusten dot. Bertsolari gazteak badatoz eta aspaldian entzuleria be asko gaztetu da, eta hori osasuntsu dagoan seinalea da. Bertsolari gazteak maila onean datoz eta hori ona da eurentzat eta bai geuretzat be.

Bertsoaren inguruan ordu asko pasetan dozuz. Ze pisu dau bertsolaritzak zure bizitzan?

Ordu asko eskini arren ez da nire bizitzako gauzarik garrantzitsuena, bertsoaren aurretik badodaz beste gauza batzuk. Dana dala, bertso eskolak garrantzi handia dau niretzat. Ezin neike nire bertso ibilpidea ulertu bertso eskola barik: bertan sortzen dan giroa,



"Bertsogintza nahiko osasuntsu ikusten dot; bertsolari gazteak badatoz eta entzuleria be asko gaztetu da"

"Txapelketa osteko saioetan ez dot niganako bestelako exijentziarik igarri"

auza batzuk"


konpromisoak hartzen ikastea, lagunak...

Bertsolari, bertso jartzaile, irakasle, Santutxuko bertso eskolako ardura-dun, gai jartzaile, epaile... Zer falta jatzu egiteko bertso munduan?

Danak dira alkarren osagarri (antolatzaille barik ez dago saiorik, epaile barik ez dago txapelketarik, bertsolari barik ez dago bertsorik...) eta bertso eskolak bertsogintzaren eragile diran neurrian bertako kideoi danerik egitea toketan jaku.

Hemendik aurrera zer eskaini gura zeunke plazan?

Apur bat danetarik eta ezer berezirik ez. Jaialdi handietan baino gusturago sentiduten naz bertso bazkari edo afarietan, egitura malguagoa dabelako eta umoreak pisu handia hartzen dauelako. Dana dala, edozein dalarik bertso saioaren egitura, entzuleagaz ahalik eta ondoen komunikatea izaten da beti helburua. la lortzen dogun!




**Derio**

OTSAILA - EGITARAUA



**LOS VIAJES DE GULLIVER**
Larunbata 5: 18:00etan
Igandea 6: 17:00etan
PG

**NO CONTROLES**
Larunbata 5: 20:30ean
Igandea 6: 19:30ean
PG

**ZIGORTZAILEAK**
Larunbata 12: 18:00etan
Igandea 13: 17:00etan
PG

**PAN NEGRO**
Larunbata 12: 20:30ean
Igandea 13: 19:30ean
17

**LA MONTAÑA MÁGICA**
Larunbata 18: 18:00etan
Igandea 20: 17:00etan
PG

**THE TOURIST**
Larunbata 18: 20:30ean
Igandea 20: 19:30ean
7

**ENREDADOS**
Larunbata 26: 18:00etan
Igandea 27: 17:00etan
PG

**TAMBIÉN LLUVIA**
Larunbata 26: 20:30ean
Igandea 27: 19:30ean
7



**GUREA ARETOA**
Lainomendi Kalea, 2 - www.derio.koudala.net

**EUSKO**
www.euskosound.es

**DERIO**
kopite
JULIO RAMIREZ
www.kopite.net

t/a: Gaizka Eguskiza

Askotan esaten da gazteek ez dutela ekimenik, "ni-ni" belaunaldikoak direla (ez dute ikasten, ez lan egin). Hori egia da batzuetan. Hala ere, Jon Goikouria sondikoztarra ez da gazte mota horretakoa, ez noski. Jon Aikor! aldizkariaren kolaboratzaile zintzoa da, eta beti dabil gauza berriak egiten, "esperimentatzen". Leku batek bestera, ikasi eta lan egiteko irrikan. Eta batzuetan lanak eta gogoak etekina ekarri diote. Esate baterako, Leioako film laburren lehiaketaren saria eraman du etxera Aimar Ruiz lankidearekin batera, *Uria* pelikulari esker.

Jonek kazetaritza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta, ondoren, urte bi gehiago eman zituen ikus-entzunezko komunikazioa ikasten. Bertan ezagutu zuen Aimar eta lagun minak egin ziren. Biek ikasi zuten karrera bera, eta biek adierazi zuten gauzak egiteko gogoak. Antzekoak zirela ikusita, elkarrekin lan egiteari ekin zioten. "Oso ondo moldatzen gara, ez dugu arazorik eta elkarrekin lantzen ditugu bakoitzari bururatutako ideiak".

Zippo metxeroen markak iragarkien lehiaketa zabaldu zuen eta bikoteak bidetara bidali zuen Ameriketara. Zortetik ez. Orduan, tokian tokiko aukerak hasi ziren aztertzen. Lehenengoa, Topaguneak antolatzen duen Kameratoia lehiaketan aurkeztu zuten *Ikara* pelikula. Berrito ere, zortetik ez. Geroago Leioako sarietan hartu zuten parte, eta bete-betean asmatu zuten hor: herriko egileen lanik onenaren kategorian lortu zuten saria. "Diru aldetik,

"Diru aldetik, sariak ez du garrantzirik, baina adorea eman digu aurrera jarraitzeko"

"Nire ametsa argazkilari profesionala izatea da; korrespontsala izatea ere izugarria izango litzateke"

Kamerari lotuta

Jon Goikouria sondikoztarra film laburren lehiaketa irabazi du Leioan, baina kalean argazkiak egitea ere izugarri gustatzen zaio



sariak ez du garrantzirik. Hala ere, guretzat inportantea da ikus-entzunezko mundu horretan sakonago sartu garelako. Gainera, adorea eman digu aurrera jarraitzeko”.

“Sarietan parte hartzearen asmatu genuen *Uria* filma. Egun batean asmatu eta hurrengoan dena grabatu genuen Leioan. Egun osoa eman genuen, goizeko 5etatik arratsaldeko 8etara arte. Film esperimentala da, eta horren bidez omenaldia egin nahi izan genion XX. mendeko hasierako sobietar zinemagintzari, Dziga Vertov zuzendariaren *El hombre con la cámara* pelikulari bereziki. Gurean, ordea, Leioa da protagonista”.

Aimar eta Jon elkarrekin aritu dira, baina *Uria* egin baino lehen bakoitzak bere ibilbidea izan du. Jon Mauritaniako basamortura joan zen aurreko udan eta dokumentala sortu zuen bidaiari buruz. Pelikula Sondikako Kultur Etxean izan zuten ikusgai txorierriarrek, baita herrialde horren inguruan egin zuen beste dokumental bat ere. Pelikula biak arrakastatsuak izan ziren, aretoa gainezka egon baitzen.

Datozen hilabeteotan hainbat proiektu ditu Jonek esku artean, zein baino zein interesgarriagoa. Esate baterako, otsailean beste film bat aurkeztuko du Aimarrekin Nontzefilm lehiaketara. Gainera, beste pelikula batzuk ere egingo dituzte, grabatzen duten bitartean “primeran” pasatzen dutelako. “Zenbait enpresak deialdiak egiten dituzte iragarki-eta egiteko. Adibidez, Sprite freskagarrien markarako iragarki bat grabatu genuen Derion eta hori Interneten dago ikusgai. Horrelakoak egiten jarraituko dugu, gauza berriak egitea gustatzen zaigulako”.

Argazkilaria

Film laburrez gainera, argazkilaritza ere lantzen du Jonek. “Niri ikus-entzunezko komunikazioa gustatzen zait, oro har, eta telebistako kamera-operadore ere egin dut lan; eta gustura, gainera. Baina nire ametsa argazkilaria profesionala izatea da. Aspaldian nabil kamerarekin leku bestetik bestera. Korrespontsala izatea ere izugarria izango litzateke, baina horretarako curriculum landu behar da”. Horren haritik, lagun pare batekin Ipar Irlandara joateko asmoa du Jonek, bertako erakunde biren arteko gatazkari buruzko dokumentala egiteko.

Momentuz ez du pentsatu kanpora lan egitera edo ikasten jarraitzea joatea. Ikus-



Jonek oso gutxitan ateratzen dizkio argazkiak bere buruari

entzunezko industria batez ere Madrilen dago, baina etxetik at joatekotan, Jonek argi du Bartzelonara joango litzatekeela. “Katalunian daude argazkilaritza-eskolarik onenak, eta hiria bera Madril baino politagoa

da. Hori garrantzitsua da, kalean nagoela momentuak harrrapatzen dituzten argazkiak ateratzea gustatzen zaidalako”. Kanpoan zein etxean, Jonek proiektu berriak asmatzen jarraituko du eta hainbat saltsatan sartzen, eta horietan guztietan kamara alboan izango du, ziur asko.

BASERRI ANTZOKIAREN PARTAIDE IZAN ZAITEZ!



TOTOANek, Txorierriko Mankomunitateak eta euskara elkarteek Baserri Antzokia aurkeztu dute herriz herri, eta proiektuak ikusmin handia sortu du herritarren artean. Baserri Antzokiaren fase berriari hasiera eman eta harpidetza kanpaina jarri dute martxan orain dela gutxi. Zu ere proiektuaren parte izan zaitezke. Horretarako, beheko formularioa bete eta **euskara elkarte**en egoitzetan edo zure **udaletxe**an utzi.

–634 401 580 telefono zenbakian (Alazne).

–alegarreta@baserriantzokia.com helbide elektronikoan.

Bazkidearen datuak

Izena: _____ PK: _____
NAN: _____ Lurraldea: _____
Helbidea: _____ Telefonoa: _____
Herria: _____ Posta e-: _____

Ordaintzeko modua

Kontu korrontean helbideratzea
Ent.: _____ Bulegoa: _____ K.D.: _____
Kontua: _____
Kontuaren titularrak: _____

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan kontutxoarenkin bat etortu, jakinarazten dirugu zure datuak fitxategi automatizatu batean sartu direla BASERRI ANTZOKIA FUNDATZIOAREN enarrazkizunaren pean, zurekin daukagun harremanaren ondoriozko konpromisoari erantzun ahal izateko.
Eis berean, jakinarazten dirugu idatzi baten bidez erabili dezakezula, zure datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezarritako edo datuen aurka egiteko eskubidea; horretarako, hori jo behar duzu Posta-kutxa: 66, 48160 (LEIOA).
Aurkarik ez baduzue, orduan ulertuko dugu zure datuak ez direla aldatu, edozein aldatuta jakinarazteko konpromisoa hartzen direla eta zure baimena dugula alderdian arteko harremana sendotzeko erabiltzeko.
Zure adostasuna ere eskatzen dirugu datuak beste enpresa batzuei jakinarazteko, baliabide eta jakinarazte hiri beharrezkoak bada kontutxo hau betetzerako, edo aldiro bihurtu arteko harremana hobetzeko eta bideratzeko.

Data: 20__ / __ / __

Sinadura:

Liderrak sortzen

Besteam zerbitzua Itzarri aholkularitza enpresak erakunde, elkarte eta enpresen eskura jartzen dituen baliabide-etariko bat da. Otsailean eta martxoan zerbitzu honetan oinarritutako ikastaroa emango dute Derion. Ikastaroa doan da eta han lehen aipatutakoek eta euren langileek, zein langabetuek hartu dezakete parte.

t/a: Itxaso Marina

Jabier Lertxundi Itzarri enpresako aholkulari senior eta lantaldeen koordinatzailea da. Bere esanetan, badaude bost kontzeptu ezinbestekoak direnak, errendimendu handiko lantaldeak lortzeko: konfiantza, koordinazioa, osagarritasuna, komunikazioa eta konpromisoa. Besteam zerbitzua pertsonengan oinarritutako kudeaketa sistema da, eta kontzeptu horiek fase ezberdinetan lantzen ditu.

“Errendimendu handiko lantaldea osatu nahi bada, partaideek nolakoak diren jakin behar dute, euren gaitasunak eta, batez ere, euren ahuleziak ezagutu behar dituzte, eta horiek gainontzeko partaideen aurrean onartu. Osterantzean, ezinezkoa izango da lantalde filosofia enpresan ezartzea”. Zerbitzuaren lehenengo fasean, beraz, taldea eta lidergoa zer diren azaltzen zaie parte-hartzaileei, eta konfiantza sustatzen da eurengan. Derioko ikastaroan Besteam-eko fase hau garatuko du Itzarrik. Nolanahi ere, enpresak edo erakundeek aukera dute kudeaketa sisteman sakontzeko.

Hurrengo pausua lantaldearen barruan liderrak sortzea da. Enpresak etorkizunari begira dituen helburuak eta horiek zertarako lortu nahi dituen aztertzen

“Bakoitzaren gaitasunak eta ahuleziak ezagutu eta onartzea ezinbestekoa da”

“Pertsonak berritzea da berrikuntzarik handiena, horiek proiektuaren baliorik garrantzitsuena direlako”

da. “Baita lantaldeko kide guztiak pentsamendu estrategiko berekoak diren ere, arlo honetako desadostasuna langileen arteko arazo-iturri nagusia delako”. Helburuak zehaztu ondoren, behar bakoitza betetzeko egokiena den langilea aukeratzeko da. Horren haritik, diziplina anitzeko



lantaldeak osatzea komenigarria dela aipatu du Lertxundik. “Guztiok dugu liderrak izateko gaitasuna. Arlo guztietan beharbada ez, baina bai arlo askotan. Enpresaren estruktura piramidala apurto eta parte-hartze horizontala sustatu behar da. Arlo batzuetan liderrak izateko gaitasuna dutela sartu behar diegu buruan langileei, eta lantalde filosofia erakundearen gauzarik inportanteena dela”. Koordinazioa, osagarritasuna eta komunikazioa fase honetan lantzen diren balioak dira; ezinbestekoak, parte-hartze eta konpromisoari heltzeko.

Euskararen erabilera

Aurretik aztertutakoa praktikara eramaten da azken fasean. Lantalde ezberdinak osatzen dira enpresaren barruan, eta





Itzarriko aholkulariek horien lorpenen jarraipena egiten dute. "Emaitzak hor daude: Eneko Atxak hiru urte daramatza gurekin eta bigarren Michelin izarra lortu berri du".

Erakunde eta enpresa ezagunak dau-de Itzarriren bezeroen artean: Euskaltel, Athletic, Lorra eta Patxi Koop., batzuk aipatzearren. Besteam zerbitzuaz gainera, Berrikuntza zerbitzua ere eskaintzen die-te. Horrela, bada, esparru honetan dituz-ten gabeziak aztertu eta SPRIk zein Foru Aldundiak bultzatutako programak ezar-tzen laguntzen die. "Gure ustez, pertso-nak berritzea da berrikuntzarik handiena, horiek edozein proiekturen baliorik ga-rrantzitsuen direlako".

Bestetik, Euskal Coaching zerbitzua-ren bitartez gazteengan euskararen era-bilera bultzatzea dute helburu. Horretara-ko, estrategia ezberdinak diseinatu dituz-te kirol, aisialdi eta teknologia arloetan. Esate baterako, Txorierriko futbol entre-natzaile euskaldunen eskola jarri dute martxan Totoanekin batera, eta entrena-tzaileei zuzendutako euskarazko liburu bi kaleratu dituzte.

Prestakuntza-ikastaroak: **BESTEAM LAN TALDERIK HOBERENAK**

HELBURUAK

- ✦ Errendimendu altuko taldeetan, eraginkortasunez lan egiteko pertsonak gaitzea.
- ✦ Enneagrama teknika psikologikoa erabiliz, taldean lan egiteko, parte-hartzaileen gaitasun eta gabezien autoezagutza eta ezagutzea lortzea.
- ✦ Norberaren izaeraren hobetze bideak ezagutzea.
- ✦ Kasu praktikoaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza sortzea.

TXOSTEN-EMAELEAK

- ✦ Koikili Lertxundi: Historian lizentziaduna eta Athletic Clubeko jokalaria
- ✦ Jabier Lertxundi: Ekonomia Doktorea eta Soziologian lizentziaduna.
- ✦ Unai Nuñez: Giza Baliabideetan masterduna, Giza Zientzietan lizentziaduna. UPV-EHU-ko irakaslea.

1. TALDEA

- ✦ Martxoak 1, 8, 15, 22, 29
- ✦ 9:00-14:00

2. TALDEA

- ✦ Otsailak 24
- ✦ Martxoak 3, 10, 17, 21, 24, 31
- ✦ Apirilak 7, 14
- ✦ 16:00-18:30

TOKIA

- ✦ Itzarri Consulting
Teknologia-Parkea, Elkartegia, 804 erakina, 100 modulua
48160 Derio (Bizkaia)

IZENA EMATEA

- ✦ 647 443 991
- ✦ mendiagi@itzarrikas.net

HARTZAILEAK

- ✦ Langile aktiboak eta langabetuak

ANTOLATZAILEA EMALEA



ITZARRI
CONSULTING
Partners del Eneagrama S.L.

LAGUNTZAILEAK

Hobetuzek, Eusko Jaurlaritzak
eta Europar Giza Ondasunak
%100ean diruz lagundua



ERAKUNDALEKON
KONTRATATUTAKO
KONTRATATUTAKO
KONTRATATUTAKO



HOBEZUZ
Hobetuzek, Eusko Jaurlaritzak
eta Europar Giza Ondasunak
%100ean diruz lagundua

“Ez naiz idazleago sentitzen”

GOTZON BARANDIARAN | Idazlea

Errotik Gotzon Barandiaran Larrabetzuko idazlearen lehendabiziko eleberria dugu. Aurretik *Arrakalak* (2004) eta *Katamalo* (2008) poesia liburuak ditu idatzita. Hori Bai gaztetxean egin dugu topo, poesiatik narraziora izandako iragaiteari buruz hitz egiteko.

t/a: Itxaso Marina

Zergatik eman saltoa genero bate-tik bestera?

Istoria formatu batean baino gehiagotan kontatzea pentsatu nuen, baina nobela eran idaztea erabaki nuen azkenean. Liburuan istorio bi kontatzen direlako, eta istoriook zati batzuetan oso deskriptiboak direlako; ez da izan poesiatik nobelara salto egitearren. Ni ez naiz idazleago sentitzen orain. Eta zaila ikusten dut aurreko liburu biek izandako oihartzuna liburu honekin ere lortzea. Ez naiz oihartzun mediatikoaz ari, irakurleekiko eta jendearekiko harremanaz baizik.

Azaldu, mesedez.

Hainbat zuzeneko emanaldi eman genituen *Arrakalak* eta *Katamalo* liburuaren haritik, eta aurrez aurreko harreman bat, oso hurbila, lortu genuen hainbat eta hainbat irakurleekin. Irakurleen klubetatik nobelagileei poetei baino gehiagotan deitzen zaiela suposatzen da; niri behintzat ez didate inoiz deitu nire poesia liburuari buruz hitz egiteko. Baina idazle asko gaude Euskal Herrian, eta guztiok ez dugu aukerarik izaten. Nobela idatzi eta irakurleen klub bakar batera ez joatea gerta daiteke; ondorioz, ez da irakurleekiko harreman hori lortzen.

Zaila suertatu zaizu narrazioa jorratzea?

Ez, niretzat askoz zailagoa da poesia idaztea. Egia da narrazioak beste teknika batzuk eskatzen dituela, erritmo bat mantendu behar dela, aurretik idatzi denari adi egon behar dela... Eta poemak subjektu estankoagoak dira: ipuinak balira bezala sor daitezke, hasi eta amaitu. Baina poesia min handiagoa ematen duen lana da, zure sentimenduetan oso sakon arakatu behar duzulako. Eta, gainera, sentimendu horiek horrela adieraztea



lortu behar duzu. Narrazioa malguagoa da horretan; gertakarien deskripzioa, esate baterako, handik eta hemendik jasotako dokumentazioan oinarrituta egin daiteke.

Etorkizunean lan gehiago etortzea espero dugu; poesiari helduko diozu berriro, narratibari...?

Ez dakit. Publikatzeko, zer kontatu eduki behar da, eta kontatu nahi dena ere argi eduki behar da. Osterantzean, hobe da ezer ez argitaratzea. Nik kontatzeko hemendik aurrera zer edukiko dudana ez dakit, eta aurkitzen dudanean idatziko dut. Ez dakit poesia izango den, nobela edo antzerkia... Orain, adibidez, elkarlanean nabil Kukubiltxokoekin, eta antzerkia idazten nabil.

Zelakoa da proiektua?

Korrika Kulturalerako enkarguzko obra bat egiten gabiltza. Beste alde batetik, Kukubiltxok eta Aristides Vargasek aspalditik daramate elkarrekin lanean, eta bigarren lan bat egingo dute. Vargasek espainolez idazten duena euskarara ekarriko dut nik.

Gustura?

Oso. Gainera, uste dut oso tresna baliagarria dela Euskal Herriaren gaur egungo egoera eta datozen aldaketa sozialak, kulturalak eta politikoak jorratzeko. Sati-raz, ironiaz eta umorez. Eta idazleok ahalgintxoa egin beharko genuke horretan, izan ere, gaur egun antzerki gutxi idazten da, eta are gutxiago argitaratu, eta askoz are gutxiago irakurri. Nik oso ondo pasatzen dut antzerkia idazten; besteekin ge-



*“Zaila ikusten dut
aurreko liburu biek
izandako oihartzuna
liburu honekin
ere lortzea”*

*“Poesiak min handiagoa
ematen du, zure
sentimenduetan oso
sakon arakatu
behar duzulako”*


hiago sufritzen dut, beharbada. Idazten nabilela barre asko egiten dut pertsonaien arteko elkarizketekin eta egoerekin.

Errotik liburuaz arituko gara. Oso gazte harrapatu zintuen Euskalduna ontziolaren gatazkak...

Liburuan istorio bi daude, batzen direnak eta aspalditik kontatu nahi nituenak. Bata, Euskaldunaren borroka da; eta bestea, aitaren heriotzak nigan utzitako arrastoa. Bereizita kontatuz gero, Euskaldunakoa kronika bezala gera zitekeen, saiakera, kazetaritziatik hurbil... Eta oraingoz ez dut gaitasunik halako gauza bat egiteko; eta gainera, ez nuen hori bakarrik egin nahi. Beste alde batetik, *Katamalo* lanean badago zerbait aitaren heriotzak nigan utzitako arrastoari buruzkoa, baina min handiegia ekartzen zidan mo-

“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”







SUITE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com



“Euskaldunako 300 langile hiru urtean izan ziren Estatu baten kontra; hori epikoa da”

mentu hartan horri buruz idazteak, eta hobeto nengoen momenturako uztea erabaki nuen. Eta orain sentitu naiz hori kontatzeko gai.

Eta zer kontatu duzu?

Euskaldunako langileen gatazkak, politikoa, soziala eta kulturala ere izan zena, protagonistengan izandako eraginaren gaineko gogoeta azaltzen ahalegindu naiz. Aita eta alabaren artean eszenifikatzen da. Aita Euskaldunako langilea da, eta bere familiaren etorkizuna Euskaldunako langile bezala irudikatzen du, baina momentu batean Espainiako gobernuak ontziola desagerrarazi nahi du. Eta horrek eragina du aitarengan; ez soilik egoera laboralari dagokionez, osasunari dagokionez ere bai. Alaba, bere aldetik, sasoi hartako gazteriaren alde baten erretratua da, izan ere, 80. hamarkadaren bigarren zatitik aurrera Bilbo politikoki eta kulturalki sumendi handia izan zen. Gatazkak eragin nabarmena du euren arteko harremanetan, aldarazi egiten ditu. Aita ospitalean dagoela, bizitza osoan elkarrekin egonda ere elkarri esan ez dizkietenak esaten ahalegintzen dira. Erabakiak hartzeko garaia

ere izan zen sasoi hura, kontraesanez betetakoa, eta hori ere azaltzen da pertsonaiengan.

Oso material gutxi omen dago gatazka honi buruz...

Liburu bakarra dago, langileek egin dakoa: *La batalla de Euskalduna*. Dokumentazioa hemerrotekatik lortu dut, eta langileekin ere hitz egin dut. Arraroa da material gehiagorik ez egotea, lehen esan bezala, garai hura mugimendu handikoa izan zelako. Horregatik ahalegindu naiz Euskaldunaren borroka nahiko zehatz kontatzen. Eta asko dago oraindik kontatzeko. Hiru urtean 300 langile izan ziren Estatu baten kontra, eta hori epikoa da.

**Gainerakoek zuri buruz idatzi dute-
na irakurri dugu; zelangoz idazlea zare-
la esango zenuke zuk?**

Askok kezkatzen nau zer kontatu izateak. Auzolana eta sarean lan egitea gustatzen zait, ikasteko gogoia dudalako eta erreferentziak nahi ditudalako. Inportantea da idazleontzat, soilik geure zilborrari ez begiratzen ikasten delako. Kontraesan bila dabilen idazlea ere banaiz. Batzuek politikoki oso lerratuta identifikatzen naute, eta ezker abertzaleko ideologia zabaltzeko idazten dudala diote. Horrek esan nahi du ez dakitela irakurtzen; behintzat nik idazten dudana, ez. Ezkerrekoa bazara, atoa jartzen dizute etiketa eta “panfletarioa” zarela diote; baina eskuindarra eta kontserbadorea bazara, ez. Dena dela, onartzen dut, ez dut ezer ezkutatzeko eta oso harro nago nire ideiez.

Anaiak Sarrionaindiaren *Narrazioak* liburua eraman zuen behin etxera; liburuak literaturarako grina piztu zuen Gotzonengan. Hori Bai gaztetxean Bihotz Bakartien Kluba (BBK) jaio zen handik gutxira, eta literatura sozializatzeko eta jendearekin konpartitzeko gogoia ere azaldu zen. Sasoi hartan Susa argitaletzeko kide egin zen Gotzon. Bere esanetan, argitaletxearen lanari esker literatura eta kultura bizitzeko beste modu bat ezagutu du, zintzoena eta demokratikoa. “Horiek ahalik eta jende gehienengana zabaltzea da gure erronketariko bat. Literatura ezinbesteko tresna da gure sasoi eta Euskal Herriaren historia ulertzeko, eta oso bitarteko egokia da etengabe-ko gogoetarako”.

BBK urteetan ibili da herriz herri errezitaldiak eskaintzen. Lehen *Sarri, gure artean* etorri zen; eta ondoren, *Poeta hilen kluba*, *Zakil alu hori*, *Arrakalak* eta *Katamalo*. Literaturari buruzko ezagutza zabaltzeko beharrezana zutela erabaki zuten BBK-ko kideek eta Susak, eta Literatura eskola jarri zuten martxan. “Lehenengo urte bietan, Larrabetzun bertan egin genuen, baina euskarazko literatura Euskal Herri oso-koa dela ikusi genuen, eta egitasmoa Euskal Herri osora zabaltzeko”.

Literatura Eskolatik beste proiektu bi atera dira: Eako Poesiaren Eguna, Gabriel Arestiren omenez; eta Literatu-



Elikatze kolektiboa

ria. "Euskarazko literaturak Durangoko Azokan gero eta protagonismo gutxiago zuela ohartu ginen, eta horrek bere plaza behar zuela pentsatu genuen, soilik euskaraz eta soilik literaturaz aritzeko. Horrela jaio zen Literatura duela urte bi". Bestalde, Ahotsenea sortzaileen gunea ere Du-

rangoko Azokaren haritik eratu den egitasmoa da.

Aipatutako guztiak sareko lanaren emaitzak dira; hau da, leku askotako jendearen gogoetaren fruituak. "Hasiera batean autoelikatzea genuen helburu, baina autoelikatze nahia elikatze kolektiboa

bihurtu da ondoren. Azken batean, hau guztia sortu da literaturarekiko kezak genituelako. Esate baterako, kanonak ez genituela guk aukeratzen konturatu ginen; beste batzuek esaten zigutela zer irakurri behar genuen. Baina esan genuen, ez, *geuk erabakiko dugu zer irakurri eta nola ere geuk aukeratuko dugu*".

Etorriko diren egitasmoak ere sareko lanean oinarrituko dira. Ekainaren lehenengo asteburuan Literatura egingo da hirugarren aldiz, baina lehenago, otsailean, beste ekimen bat jarriko da abian Euskal Herriak Bere Eskola elkartearekin batera. Euskal Herriko bost kanpusetan aldi bereko mahai-ingurua antolatuko da, literatura hezkuntzan zelan lantzen den aztertzeko. "Sarean aritzeak etengabeko ideia-kaxa dakar. Euskarazko eta munduko literatura aukeratu, eta hori zelan transmititu nahi dugun erabakitzen gabilta. Transmisioa ere badelako".

"Euskarazko eta munduko literatura aukeratu, eta hori zelan transmititu nahi dugun erabakitzen gabilta"



CAFE-BAR
BIDE-GORRI
Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8.00etatik aurrera
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 452 26 75

Tamara
Kopata-denda Osagarriak
Herriko plaza, 2
Dena: 94 656 67 27
Doctor Luis Bilbao Libano, 6
Lena: 94 463 06 32
tamaraeioa@yahoo.es

LEANDRO LANDETA
HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

HARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeke berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tfnos: 94 455 89 41
LARRABETZU

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta implanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuzitzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Anguleri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

URAS
Estetika eta masajea
Aita Patxi Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Aitor Larrazabalek aurkeztu euskun AIKOR! aldizkariaren 0 zenbakia. Bederatzi urte igaro dira harrezkero, eta 100. alea kaleratu da. Aldizkariaren orrialdeetan ehunaka azaldu dira txorierritarak, albista zein bisitari moduan.

Ilusino handiagaz, eta ordenagailu bat eta argazki-kamera bat baino ez zituala jaio zan AIKOR! Txorierriko herri aldizkaria. Tamainu honetako proiektu bat aurrera ateratea erronka handia eta barria izan zan Totoan Txorierriko Euskera Alkarteen Federazioarentzat. Baina o-
tsoa belarrietatik hartu eta gainditzen joan dira hasikerako nahiz eguneroko zailtasunak, harik eta aldizkaria gurean erabat sendotu arte. Taldearen behar egiteko gogoia, erronkei aurre egiteko prestasuna, euskera alkarteen kohesioa eta lankidetzak, eta herritar, merkataria eta erakundeen laguntasuna eta babesa ezinbestekoak izan dira prozesu honetan. Izan be, oso sare handia osatu da aldizkariaren inguruan, eta euren kideek alkar harturik egin dabe behar urteotan.

Bederatzi urte, 100 ale



AIKOR! 9, 2002ko urria

Eskualdeko barriak ekarten dituan txoria hilean-hilean sartu da txorierritaron etxeetan, eta bidean koskortu eta sendotu egin da. Horrela, bada, 4.000 ale

banatzetik 6.000 ale banatzera pasau da. Produktuak berak be aldaketa handiak izan ditu. Aldizkariaren orri kopurua handitu egin da eta zuri-beltzeko aleak kolorez bete. Diseinua be goitik behera barriztu da, irakurleei eta iragarleei produktu modernoagoa eta erakargarriagoa eskintzeko.

Helduaroa

Txoria eraldatu dauena talde plural eta zabal bat izan da, euskaltzaleez, kazetariez, hizkuntzalariez eta artistez osatua. Taldeak hainbat topaketa egin ohi ditu eta topaketotan aztertu zein izango dan txoriaren itxurea, haren mamina eta hizkuntzaren egokitasuna. Guztien lan esku-zabal eta ordainduezinari esker, helduaroan da gure txoria. Bizitzea, halan be, etenbako ikasprozesua da, eta datozan urteetan be jarraituko dau ikasten txo-

“Jente asko sentiduten da aldizkariaren parte; hor dago arrakastea”

ALES ATXUTEGI (LAGATZU) ETA XABIER GOIENETXE (ZORRIZKETAN) | sortzaileetarikoa



Zelango testuinguruan jaio zan AIKOR!?

Euskera alkarreak jaio barriak ziran garai hatan, eta ikusi genduan beste herrialde batzuetan baegoza euskerazko herri aldizkariak, baina gurean, ez. Denporearen poderioz beste batzuek sortuko leikiela pentsau genduan, baina gaztelaraz, beharbada. Eta aurea hartu behar geuntsan horri. Aldizkaria argitaratzea erabagi genduan, euskerearen alde egiteko, euskerearen erabilera susteteko eta txorierritarrei batasuna emoteko.

Oso ondorio onak atera ziran 2008an egindako azterketatik: besteak beste, komunikabiderik irakurriena AIKOR! dala Txorierrin, eta herritarrek gustura hartzen dabela.


Eskualdean ez dago komunikabiderik etxeetan gureak beste eragina dauenik. Txorierrin badagoz 19.000 biztanle, eta guk 6.000 ale banatzen doguz; eragin handia dau horrek euskaldunengan zein erdeldunengan. Ganera, hemengo gaiak lantzen dituan beste komunikabiderik ez egoteak interesa sortzen dau. Beste alde batetik, kolaboratzaile-sare handia osatu da aldizkariaren inguruan: batzuek buru-

riak, garai barrietara egokitzeko eta hel-
duago bihurtzeko.

AIKOR!-ren jaiotzea eta bizialdia jai
handi batez ospatzen doguz urtero.
Orain ia hamarkada bat egin genduan
lehenengoa. Herritarrek emondako ba-
besa eskertzea izan eban helburu besta
horrek, baina, urteen buruan, guztiontza-
ko hitzordu bihurtu da. Babes hori handi-



AIKOR! 12, 2003ko urtarrila



AIKOR! 48, 2006ko apirila

tzen joan dalako. Aurton Larrabetzun os-
patuko dogu. Ekitaldia otsailaren 4an
egingo da, iluntzeko 8etan, hango esko-
lan. Besteak beste, Joan Mari Torrealdei
kazetariak, Kherau musika taldeak, Abar-
ka antzerki taldeak eta bertsolariek har-
tuko dabe parte. Aikor!lagunak, iragarle-
ak eta euskaltzaleok be bertan izango ga-
ra.

*“Talde mugitua eta
inkonformista izateak
ekarri dauz AIKOR!-ek
bizirik irautea
eta proiektu
barriei heltzea”*

belarri lagundu euskuen proiektua mar-
txan jarten, beste batzuek gugaz jarrai-
tu dabe bederatzi urte honeetan, eta
beste batzuek geroago egin dabe bat
egitasmoagaz. Horregaitik jente asko
sentiduten da aldizkariaren parte, eta
oso positiboa da hori. Ahalik eta aldiz-
karirik pluralena egiten ahalegintzen
gara, mueta askotako lagunak ateraten
dira gurean eta, momentu baten edo
bestean, Txorierri osoa egon da bertan
ordeztuta.

**Aldaketak egon dira bederatzi
urtean: zuri-beltzetik kolorera pase-
tea, diseinua aldatzea... Badago bes-
te erronkarik?**

Lortu doguzan zabalkundeari, o-
narpenari eta maila ekonomikoari
eusten badeutsegu, bide onetik jarrai-
tzen dogula esan gurako dau horrek.
Baina badogu erronka inportante bat:
aikor.com. Webgunea gehiago landu
behar dogu, eta erabilgarriagoa egin,
erreferente bihurtu daiten edozein
txorierriarrentzat. Bertan topa daia-
zan, eguneratuta, edozein informazi-
no mueta, albisteak, zerbitzuak...

**Badago formula magikorik bizi-
rik irauteko?**

Beharra eta aurrera egiteko gogoa
izatea. AIKOR! oso baliabide gitxigaz
sortu genduan, baina urteek aurrera
egin ahala autofinantzazino maila al-
tua lortu dogu, aldizkaria sendotu do-
gu eta beste proiektu batzuei heldu
deutsegu. Taldea mugitua eta inkon-
formista izateak ekarri dau hori guztia.
Zabala eta parte-hartzailea izatea be
inportantea da, leku askotan besoak
zabalik hartzen zaituelako, aldizkaria
propiotzat jotzen dabelako. Eta, noski,
merkatariei euskarri egokia eskintzea,
gurean euren jardueraren barri emo-
teko.

ANDONI ATXUTEGI,
Ipar-Alde Derioko
abesbatzaren bozeramalea
(Derio)

Txorierrin gaur egun dagoan aldizkaririk jatorrena da, eta euskera arloan gehien behar egiten dauena. Izan be, gurean beste komunikabide batzuk badagoz be, hareetan erakunde ofizialen ekintzak baino ez dira azaltzen; edo industriara zuzenduta dagozan agerkariak dira. Ganera, ezin dira euskera hutsean argitaratu, gure bailaran erdeldun asko dagozalako. Horren haritik, interesgarria iruditzen jat AIKOR! aldizkariak euskera arloan egiten dauen lana, euskera hutsean dogun komunikabide bakarra dalako, eta euskaldunon helburua bete dauelako: euskerea bai beharrean bai atsedendian erabiltea. Arlo guztietan arrakasta handia lortzea opa deusuet.

JOSEBA ZARATE,
Elizalde gurasoen alkarteko kidea
eta udal euskaltegiko irakaslea
(Zamudio)

Jakizue badirala bederatzi urte Txorierriko bailara zahar honetan AIKOR! munduratu jakula, nork esango zeuen orduantxe honaino ailegauko zala. Hasiera guztiak umetxoan modukoak dirala, halantxe izan ziran hareek be "zorotxu" batzuen burutazino kaskagogor baten frutua, kasu. Halan da be, ez gaitezkan "ohitu" zentzu onean esanda, hilero "paisajeko" moduko gauza eukiten gure AIKOR! maitea, hortxe berton egon litekelako geure okerrik handiena. Geure ardurea horixe bera mantentzea da, geure aspal-diko berba zaharren modulez, sekula santan desagertuko ez dan ondorengoen-tzako herentzia parebakoa dogulako. Orduan, "Jagon Maite dozun hori" ba!

Irakurleek emon dabe eritxia



AIKOR! 75, 2008ko urria

BEGO VICARIO,
EHUko irakaslea eta zinemagilea
(Lezama)

Nork esango, abentura hau abiatzeko lehen urratsak egin ziranean, bidean agertutako oztupo guztiak gainditu eta oraindino helduko zanik gure AIKOR! hau. Etxean hartzen dogun bakotxean, ale barri hori bera da ahalegin haren oroigarria, eta aldizkariaren eukiak haren emaitza doa. Etxean garenon artean badira artikulu mueta faboritoak, baina guztioi gustaten jakuna aldizkariaren tonu hurbila da, artikuluak, gaia dana dalakoa izanda, beti lagun ezagunen batek idatzitakoak diralako, eta orokorrak diran barrietan be, gure inguruan bertan gertatzen danaren barri jakiteko erea emoten dogulako. Eta ganera, euskeraz...zer gehiago, bada? Beste ehun ale!

JESUS MANUEL LANDA,
Sondika liburudenda
(Sondika)

Oso euskarri egokia da merkatariontzat, geure jardueraren barri inguru hurbilean emoten dogu-eta. Txorierrin mailan berezko dogun komunikabide bakarra da, herriak eta herritarrok batzen gaitu, eta jentek goitik behera irakurtzen dau, iragarriak barne. Horrela, bada, liburu-dendara beste herrietako jentea etorten da material bila. Galdetzen deusdanean, iragarria AIKOR! aldizkarian ikusi dabela esaten deuste. Argi daukat zergaitik ipini iragarria kanpoko komunikabide edo gida batean, nire bezeroak Txorierrin bertan badagoz? Ganera, hainbat ale uzten deustez hilero liburu-dendan, eta egun batetik bestera desagertu egiten dira. Jentek gustura hartzen dau.

MALEN AMENABAR,
bertsolaria
(Larrabetzu)

AIKOR!, txorierritarren aldizkaria. Hilero gure etxeko gutunontzia bisitaten dauena. Geure inguru hurbilekoari buruzko informazioa emoten deuskun leiho zabala. Orain bederatzi urte hasi; eta gaur, gero eta zabaldutago dagoana. Hamaika alkarriketa, dokumentu, eretxi, erreportaje... gordeten dituan altxorra. Euskeratik eta euskeraz egin, etxean eta etxekoentzako. Halanda be, deskribapen luze bat alperrekoa dala uste dot. Azkenean AIKOR! ondo egindako lan baten emaitza dalako. Ehungarren ale hau beste askoren aurrekoa izan daitela... Zorionak.

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...




902 54 08 54 www.arlan.biz

GORKA CARRO,

**Txorierriko Mankomunitateko
presidentea eta Sondikako alkatea**

Zorionak emon gura deusuedaz aldizkaria egiten dozuen guztioi, orain arte bezain ongi jarraitu daizuen beharrean. Lehen zenbakia argitaratu zanetik Txorierriko herri guztietan banatu da hilero. Dagoeneko ehun ale kaleratu dozuez, web-gunea martxan ipini, bloga... eta proiektu aberats honek sendotuta eta bizirik jarraitzen dau. Gazteek euskeraz sortzea nahi dogu eta AIKOR! aldizkari euskalduna da, euskeraz bizitzeko tresna sendoa. Posible egin dabenei eskerrak emotea besterik ez jat gelditzen. Bide luzea izan da, baina hasiera besterik ez. Gogoan izan etorkizuna euskeraz datorrela!



AIKOR! 85, 2009ko iraila

OLGA LOROÑO,

**Txepetxa AEK euskaltegioko irakaslea
(Larrabetzu)**

Ehun ale pasa dira AIKOR! hasi zanetik, eta gaur egun aldizkari sendotua, heldua da. AIKOR!-en arrakastea interes desbardinei erantzuteko gauzak konbinaten jakitean datza; hurbiltasuna eta protagonistak eza-gutzea garrantzizkoa da eta, zalantza barik, horrek ekarten dau prentsea euskeraz inoiz irakurtzen ez dauena be AIKOR!-era hurreratzea. Eta ingurukoak agertzeaz gain, garrantzia emoten deutso gure egunerokotasunari, hurrekoari, ageriko egiten dau. Beraz, zorionak AIKOR! 100 ale bete dozuzalako, eta zorionak txorierritarroi hilero-hilero posible egiten dogulako etorkizunari begirako aldizkari bizia izatea.



AIKOR! 55, 2007ko abendua

AITOR LARRAZABAL,

**SD Lemona futbol
taldearen entrenatzailea
(Loiu)**

AIKOR! Txorierriko aldizkariari eta beronen irakurle guztiei zorionak emon gurako neuskiez; informazio interesgarria eta geure ingurukoa eskaintzen deuskun aldizkariari hain zuzen be. Eta hori gitxi balitz, albisteak, alkarriketak, erreportajeak, pertsonaiak... geure hizkuntzan hurbiltzen deuskuz, euskeraz. Etorkizunean be holan jarraitzea espero dot, eta 200. alea kaleratzen dozuenean, barriro be zorionak emotea.



AIKOR! 68, 2008ko otsaila

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bhotza plaza, 5 - Euskalduna er. 7, 1. dptoa
48001 Bilbo Tel.: 94 436 80 10 - Faxa: 94 436 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

Garmendia ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze integralak
Gremioen koordinazioa

Lehendakari Leizaola enparantza, 2 behea
48170 ZAMUDIO
Tel. 94 406 04 01 - Fax 94 406 04 08
Mobiila: 615 742 788

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 5 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkai)

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Orain-jentzia & Hortz-estrika
HORTE-PLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HAURREK JENTZIELEKIA

Dr. Arcelus kalea, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Orte-plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Kerik ez, baina sua, bizi-bizirik

t/a: Gaizka Eguskiza

Derioko Erdiko Kalean gaude. Arratsaldeko 4ak dira eta normaltasuna da nagusi kalean: ama batzuk, umeeekin jolasean, eta beste batzuk, kafesnea hartzen Mendia tabernako terrazan. Dirudienez, ezer ere ez da aldatu, eta antzeko zerbait esan digu Mari Jose Eduardo Derioko Ostalarien presidente eta taberna horretako jabeak. "Tabakoaren kontrako legea oraintsu jarri da indarrean, baina herrian ez du eragin handirik izan: ostalariak ez dute bereziki nabaritu bezero gutxiago sartu direnik".

Nabaritu ez, baina gustatu ere ez. "Guri ez zaigu tabakoaren kontrako legea gustatzen, baina onartu egin behar izan dugu, beste erremediorik ez dugu izan eta. Tabernariok haserre gaude, inposatu egin digute legea". Gainera, legea beteaz egin behar dute tabernariak, eta hori ez zaio batere gustatzen Mari Joseri. "Orain 50 urteko egoerara itzuliko gara, salatariak zeuden garai hartara. Eta ez da atsegina, gu ez garelako poliziak. Gure lana aisialdia da, hau da, jendeari ondo pasatzeko leku atsegina eskaintzea. Eta legea betearazten ez badugu, isun handiei egin beharko diegu aurre".

Txus del Bado Amairu Aretxeta Zamudioko tabernaren jabeetako bat da, eta konponbide bat proposatu digu. "Taber-

Tabernak ohiko lekuak dira eztabaidatzeko: politika, kirola, bizitza bera... Tabernetan edan ere egiten da, eta orain arte erre ere bai. Espainiako Gobernuak tabernetan erretzea debekatu du eta eztabaida sutuak piztu ditu erabaki horrek. Tabernetan ez da kerik egongo, baina eztabaiden sua piztu da, dudarik gabe.





Okeia ekolizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
teistorra, solomoak...

Plater aurrekoizinat

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salo - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 80 • 48196 LEZAMA



GDITOLTZA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**

epetargi@excavurmendi.com



MÓVIL: 649 102 122
TEL./FAX: 944 554 158



LANDARE APAINGARRIA

Goititza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

**GOIKO
TABERNA**

Menu berriak zabalduak • Etxe oraindik platerak • Berrak zabalduak

B.º Gortoliza, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

Taberna-jatetxea
Emiliano

• Egurko menua eta karta
• Jantzeriak eta oharak
• Jantzeri zaharrik

nok zenbait baldintza bete behar ditugu, eta, tabakoaren kea hain nabarmena ez izateko, ke-erazgailuak jarri ahal dira, adibidez". Txusek uste du legeak badakartzala alde onak eta txarrak. "Legea ondo dago tabernetako giroa garbiago dagoelako; hala ere, bezeroen ohituren kontra jotzen du. Izan ere, %80 erretzaileak dira. Orain kanpora joan behar dute erretzera, eta horrek hondatu egiten du betiko koadrilen giroa, eta zarata handiagoa sortu".

Mari Jose bat dator horrekin, baina legeak ekarri ahal duen beste arrisku bat ere aipatu du. "Tabernak enpresa txikiak dira, eta ostalariok, gainerakoek bezala, dirua irabazteko egiten dugu lan. Legeak kalte ekonomikoak ekarriko dizkigu, ziur asko. Gaur egun izugarrizko krisia dago eta horregatik ez da momenturik onena legea ezartzeko". Era berean, Txusek kontuak atera eta salmentak %10 jaitsi direla atera du ondorio, baina Zamudioko ostalari horrek ez daki krisiak edo lege berriak eragin duen galera hori.

Umeak babestu

Txusen iritziz, legea ez da oso logikoa alderdi batzuetan. "Gobernuak esaten du umeak babesteko ezarri duela legea, jendea erretzen ikus ez dezaten. Baina kanpoan erretzen bada, taberna barruan baino nabarmenagoa da. Nire ustez, logika horri jarraituz, debekatu egin beharko litzateke kalean erretzea, ez areto itxi batean. Horixe gertatzen da marihuana-ekin edo haxixarekin, eta tabakoa ere droga da. Beraz, berdin-berdin jokatu be-



har da. Bertan behera utzi nahi omen dute erretzeko ohitura, baina hori oso zaila da. Gakoa da umeak erretzen ez hastea".

Legea dela-eta, hainbat iskanbila egon dira taberna batzuetan. Derion, zorionez, ez da halakorik gertatu, "bezeroek jarrera ona adierazi baitute". "Erretzaileek legea onartu, eta kanpoan erretzen dute. Batzuk tabernara sartzen dira zigarroa ahoan daramatela, baina konturatu barik, eta irten egiten dira berehala. Eta erretzen ez dutenak poz-pozik dabil-tza: kerik ez dagoenez, orain batzuk sartu ere egiten dira tabernara", esan du Mari Josek.

"Ostalarioi ez zaigu tabakoaren kontrako legea gustatzen, baina onartu egin behar izan dugu"

Fermin ez da horietako bat, askotan joaten baita tabernetara. Derioztar honek ez du erretzen, baina "zalantzakotzat" jotzen du legea. "Ostalariei kalte ekonomikoak ekarri ahal dizkie, baina erretzen ez dugunontzat, berriz, zoragarria da. Legearen alde nago". María, berriz, legearen kontra azaldu da. "Erretzailea naiz eta geuri ederra egin digute! Nire ustez, taberna mota bi egon beharko lirateke: batzuk, erretzaileentzat, eta besteak, erretzen ez dutenentzat. Erretzaileek erlaxatzeko eskubidea dugu. Legea oso erradikala iruditzen zait, oso zorrotza, diktadura batean egongo bagina bezala. Baina atsotitzak dienez, 'nekeetan, irria ezpainetan' eta orain umeekin sartu ahal zara tabernetan".

Denboraren poderioz jakingo dugu, agian, legea onuragarria den edo ez. Bitartean, edaten eta eztabaidatzen jarraituko dugu tabernetan, eta, zortetik izanez gero, horrek lagundu egingo digu barruko suak askatzen, baina kerik sortu barik, legeak debekatzen du-eta.

MODA INFANTIL
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

volconsa DIVISIÓN
ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Zeure etxea intsonorizatu, doan
(Kostu osoa, AENAREN eskutik)

tel. 94 644 00 19 faxa. 94 406 49 13
aislamiento@volconsa.es www.volconsa.es
Sollube, 1 - DERIO

ipuna
zure moztorra,
HEMEN

Txorierrri etorbidea, 9 atzealdea
48160 Derio (BIZKAIA)
Tel: 94 645 55 33
ipuna@hotmail.com

Elorria; aldapan gora, aldapan beheara



Mapa: Ander Lasa

Neguak eta eguraldi txarrak atsedena emon deuskue eta udabarriaren berezkoak diran egunez gozeteko aukera euki dogu urtarrilean. Mendiko botak jantzi eta lagunakaz lotu gara domekan, inguruak eskaintzen deuskuzan parajeak ezagutzeko asmoz. Lezaman gelditu dogu autoa eta hango taberna batera sartu gara kafe bana hartzera. Barra gainean *Lezama*ko ibilpideak aldizkaritxua ikusi dogu eta kuriosidadez emon deusagu begirada bat. Herriko alkarteek "Lezama"ko mugetatik mendi martxa eta lasterketaren harira kaleratutako argitalpen txikia dala esan deuskue. Aldizkaritxuan lau ibilpide azaltzen dira eta horreek nahiko errazak dirala pentsau dogu. Lagun batek planak aldatzera animau gaitu eta ibiltaldia Lezamatik bertatik egiteko proposamena luzatu deusku. Konbentzidu gaitu eta hamar minutuan izan gara eztabaidatzen, gaur egingo genduan ibilpideari buruz. Desadostasuna nagusi izan da gure artean; horregaitik demokratikoen egitea erabagi dogu: hasieratik hasi. Eta aldizkaritxuan proponiduten deuskuen lehenengo ibilpideari ekin deusagu: Elorria izenekoa. Gutariko batzuei ordena gustaten jakulako. Gainontzekoak beste baterako itxi doguz.

Elorria ibilpideak 5,8 kilometro ditu eta ordubete eta hogeta hamar minutu irauten dau, baina guk denpora apur bat

"Errotabarriko zubia igaro eta bidezidor batetik barruratu gara basora. Antxina, hildakoak bide horretatik eroaten ei zituen hilerrira"

Jatetxea SAN ISIDRO

ESKOLAKO OHELETA ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mungia etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

t o k t a k

EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etatik 15:30ra arte
20:00etatik 23:30ra arte

Etxera eramateko zerbitzua: 1 €

Bestorrene 5, Behe 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Beheko Kalea Bajoa
DERIO



gehiago emon dogu bidean. Entretienidu egin gara baserriakaz eta besteakaz.

Udaletxeko plazatik atera eta Mikel Zarate plazaraino doan errepidea hartu dogu. Errepidean gora egin dogu eta plazara ailegau garenean, Goitioltza auzorantz abiau gara. Errepidean behera, oraingo honetan. Plazatik 460 bat metro-ra Bekoerrotarako bidea ikusi dogu. Bide asfaltautik jarraitu dogu eta 400 metro egin ostean, ezkerrean hartu dogu bidekurutzean. Bideak Elorria auzoraino eroan gaitu. Erreka eta Bekoerrotako baserri hurbil pasau gara. Aldizkaritxuan irakurri dogun legez, baserria errotea zan antxina.

Tipi-tapa

Aldapea igon eta Goitizuri baserrira heldu gara. Han bidezidorra hartu dogu eta laster ikusi dogu barriro asfaltoa. Bidetik bajatu gara, hegoalderantz, eta Elorria edo Goitioltzako iturrira ailegau gara. Bidetik jarraitu eta Goitioltzako eskolak ikusi doguz, gaur egun txoko publikoa diranak. Esku artean dogun argitalpenean azaltzen dabenaren arabera, Goitioltza auzoa kurutzatzen dauen BI-3726 errepidean gagoz barriro be; hau da, ibilpidearen hasieran hartu dogun errepidean. Argibideei arretaz jarraitu deutsegu eta eskuman dagoan errepidea hartu dogu. Apur bat ibili ostean, SAT-LEGUren kartela ikusi dogu. Ezkerreko bide horretatik sartu gara.

Behoko bide asfaltautik tipi-tapa ibili gara eta Bolu eta Errotabarritik pasau gara; "egun, errotetxeak; garai baten, burdinolak" dinoe aldizkaritxuan. Ezkerrean jo ten dauen saihezbidea hartu dogu eta Errotabarriko antxinako zubi txikia igaro dogu. Bidezidor batetik basora barruratu gara. Zalantzak doguz. Argitalpenean kontsultau eta antxina hildakoak hilerria bide horretatik eroaten zituela irakurri dogu. Andabidea ei zan; berba barria be ikasi dogu.

Bidezidorrean gora egin eta Garaioltza auzora ailegau gara, Larrene baserriaren parean. Errepideak Mikel Zarate plazara eroan gaitu barriro eta atsedena hartu eta eztarria freskatzeko aprobetxau dogu hango tabernan. Aldapan behera bajatu gara, autoraino, laster beste ibilpide bat egingo genduala aitatu dogun bitartean.



CARRROCERIAS TXORIERRI
Jose Antonio Latorre

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Torrelagoiti Pol. Vial sur C-15. Nave B5-1 48100 Zamudio BIZKAIA
Tlfaxa: 94 452 29 03

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familen bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

BAR BIDE-BI

Zamudio
Aukeratu zurea!

Gozeko Setatik, aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA

ESPEZIALITATEA: TXAPA ETA PINTURA

ESTILISTA EVA ARDINES

AmAr

Asteartea - Ostirala: Setatik-19etara
Larunbata: Setatik-14etara

Urte Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 18; (Aurreko txanda)

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu BERRIAK
Logopedia
Podologia

clínica dental ZAINDUZ hartz klinika

Touramir ibaridea, 9 - Lortza | Arteaga eskolara | 48100 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

“Praktikatzea eta nahi izatea da gakoa”

t: Itxaso Marina / a: Germán Gómez

Erabaki bat baino gehiago sorpresa bat izan zen taldea sortzea.

Taberna batean batzeko ohitura dugu eta, tragoren bat edaten dugun bitartean, dardoetan aritzen gara. Behin batean, tabernariak Ligan sartu gintuela esan zigun, inprimaki bat erakutsiz. Guk inprimakia sinatu baino ez genuen egin behar; eta, oso sinetsirik egon ez arren, sinatu egin genuen. Zalantzak izan genituen, ez delako berdina herriko tabernan jokatzera edo tabernarik taberna ibiltzea Bizkai osotik.

Eta zelakoak izan ziren Ligan eginko lehenengo pausoak?

Taldea orain urte eta erdi eratu genuen eta dagoeneko hiru ligatan hartu dugu parte: negukoan, 2009an; eta udakoan eta negukoan, iaz. Lehenengo urtean, zortzigarren mailan hasi ginen, baina, gure batez bestekoak direla-eta, laugarren mailara igo gintuzten. Bigarren lotu ginen. Iaz laugarrenak izan ginen udako ligan; eta bigarrenak, negukoan.

Tiratzailerak onak izateak Euskadi eta Espainiako Txapelketetara eraman zaituzte. Arazorik pultsuarekin?

Hamargarren postuan lotu ginen Euskadiko Txapelketan. Lehenengo aldia zen halako lehiaketa batean hartzen genuela parte, baina ez genuen batere txarto egin. Hala ere, geure buruarekin apur bat haserre itzuli gara Espainiako Txapelketatik. Aukera gutxi izango genuela pentsatuz joan ginen hara, eta ondo pasatzea zen gure helburu nagusia. Baina lortutako emaitzak nahiko onak izan dira

UDONDO DERIOKO DARDO TALDEA

Zazpi adiskideek osatzen dute Udondo, eta taldea sortzea ustekabeko zerbait izan zen. Oso tiratzaile finak dira eta, aitortzen dutenez, gero eta handiagoa dute dardoe-tarako zaletasuna. Germán Gómezek eta Aitor Ferreirok azaldu digute zergatik.

–hamaikagarren gelditu ginen taldekako txapelketan; bosgarren, binakakoan, eta hirugarren, banakakoan– eta uste dugu, apur bat gehiago prestatu baginen, emaitza askoz hobeagoak lortuko genituela.

Zelako itxura du hasi berri den udako ligak?

Batez bestekoak kontuan hartuta,

hirugarren mailara igoko garela uste dugu. Beraz, gogorrago ekin beharko diogu, dena aldatu delako: arauak, parte-hartzaileen maila... Baina laugarren mailan jarraitzen badugu, gogor arituko gara, Espainiako Txapelketa irabazteko. Geure iritziz, Europako Txapelketara joateko aukera ere izango dugu.



POXPOLIN
OPARIAK ETA ARROPA

94 656 72 25

ARALAR, 4
DERIO

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

harategia - urdaitegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Gehiago entrenatuko zarete behintzat, ezta?

Bai, hori da gure helburua. Orain arte ez dugu entrenamendu ofizialik egin; tabernan lotu gara eta, aukerarik izan denean, partidaren bat jokatu dugu. Baina serioago hartuko dugu hemendik aurrera.

Noiz jokatzen dira partida ofizialak?

Ostegunetan. Dardoen inguruan dagoen giroak erabat erakarri gaitu. Oso giro ona eta atsegina da. Gainera, hori dela-eta aitzakia ona izaten dugu, ostegunetan lagunekin biltzeko.

Badago sekreturik?

Ez, praktikatzea eta nahi izatea da gakoa. Mekanika hutsa da: dardoa beti

berdin jarrita zaudela botatzen baduzu, akatsak zuzentzea eta gero eta punteria hobea izatea lortuko duzu.

Zelako maila dago tiratzaileon artean?

Altua. Espainiako Txapelketara 100 lagun joan ginen Bizkaitik, baina han 3.000 parte-hartzaile inguru batu ginen: Madrilekoak, Bartzelonakoak, Asturiaskoak... Eta, noski, maila handia da. Gu Amateur C kategorian ibili ginen eta taldekako txapelduna Durangoko talde bat izan zen. Banakako txapelketan lehenengo hirugarren postuak eskuratu zituztenak ere euskaldunak ziren. Are gehiago, irabazlea 11 urteko mutiko bat izan zen, Gipuzkoakoa. Hain maila altua zuen, ezen haurren kategoriatik C kategoriara igo eta hura ere irabazi egin baitzuen. Harrigarria!

Zaletasunari eusteko, beharrezkoa da diru-iturriren bat izatea. Babesleen proposamenik jaso duzue?

Gutxienez lau lagunek osatu behar dute taldea, eta, txapelketara joaten zarenean, lau lagunentzako bidaia, ostalua eta mantenua ordaintzen dizkizute. Espainiako Txapelketari dagokionez, geure pol-



tsikotik ordaindu behar izan dugu beste kideen zatia. Eta nahiz eta lau lagunentzako mantenu osoa ordainduta eduki dugun, partidak goizeko 11etan hasi dira eta gaueko 9etan amaitu. Beraz, ez gara hotelera joan ez bazkaltzeko ez afaltzeko. Gainera, partida bat jokatu dugun bakoitzean, makinan dirua sartu beharra izan dugu. Txapelketetan ere ordaintzen delako jokatzeari. Beste alde batetik, dardoak erosi egin behar dira, lumak, puntak... Bai, ondo legoke babesleak izatea.

*"Oso giro ona
dago eta aitzakia
ona da lagunekin
biltzeko"*



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA
Otsailaren 27an, 17:00etan

"HUBBLE BROS"
Made in Jabon konpainia
Antzerkia, umorea, magia
eta xaboi-burbuilak
Testurik gabe

+12 urte: 3 €
-12 urte: 5 €

ZINEA
+12 urte: 2,5 €
-12 urte: 4 €

sarrerren salmenta
entzako kulturetarren
944 310 310
www.bbk.es
bbk
txarteldegian
ordu bat lehenago

BFA DFB
Foru Aldundia
Deustaldeko Foru Aldundia

LA MONTAÑA MÁGICA
(AG) 83'
Otsailaren 6an, 18:00etan
Otsailaren 6an, 17:00etan

COMO LA VIDA MISMA
(AG) 112'
Otsailaren 6an, 20:30ean
Otsailaren 6an, 19:30ean

EL PEQUEÑO REY MACIUS
(AG) 83'
Otsailaren 12an, 18:00etan
Otsailaren 13an, 17:00etan

AHORA LOS PADRES SON ELLOS
(AG) 97'
Otsailaren 12an, 20:30ean
Otsailaren 13an, 19:30ean

ENREDADOS (RAPUNZEL)
(AG) 104'
Otsailaren 19an, 18:00etan
Otsailaren 20an, 17:00etan

MORNING GLORY
(AG) 102'
Otsailaren 19an, 20:30ean
Otsailaren 20an, 19:30ean



LA LEYENDA DE LOS GUARDIANES
(AG) 105'
Otsailaren 26an, 18:00etan

RED
(EG-13) 111'
Otsailaren 26an, 20:30ean
Otsailaren 27an, 20:00etan







*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake

Sendabidea naturan dago

Emiliano Arnaizek inguruko zelai eta mendietan hazten diran bedarren ezaugarri terapeutikoak azaldu deuskuz

t/a: Itxaso Marina

Gizon-emakume primitiboek janari-iturria ez eze gorputz eta arimaren gatzak osatzeko bidea be topau eben bedarretan. Kontinente guztietako zibilizazioak bedarren erabilera mediko eta terapeutikoez baliu egin dira mendeetan zehar, eta gaur egungo botika askok be euren ezaugarri sendagarrietan dabe oinarria. Garapen teknologikoak eta kimikako industriak medikuntza naturala aukerako baliabide bihurtu arren, harek gero eta jarraitzaile gehiago ditu.

Emiliano Arnaiz sondikoztarrak ondo baino hobeto ezagutzen ditu bedarrek eta landarek eskaintzen deuskuezan ezaugarri terapeutikoak. Azaldu deuskun lege, ez dau ikasketa berezirik egin eta bedarren ganean dakien guztia handik eta hemendik ikasi dau; "besteei entzute-tik". Gazte-gazterik zala euki eban lehenengo kontaktua medikuntza naturalagaz, amak be bedarrak erabilten zitualako etxekoen eta auzokoen gatzak osatu

"Etxean beti erabili izan doguz, baina ondo jakin behar da zertarako eta zelan erabili"

eta minak arintzeko. "Bedarrek ezaugarri sendagarriak dabezala ez da gauza barria. Etxean beti erabili izan doguz, beste hainbat lekutan eta herrialdeetan egin dan moduan. Baina ondo jakin behar da zertarako eta zelan erabili".

Ezkai-infusinoa emakumeentzat oso onuragarria dala esan deusku, "toxinak kanporatzeko egokia dalako". Eta intxaurrondoaren hostoak baliagarriak dirala psoriasiaren aurka. "Hostoak surtan jarri behar dira lapiko baten. Ura irakiten has-tan danean, tapau

egin behar da. Ukendua goizero emon behar dogu buruan". Erromeru-alkohola muskuluetako mina arintzeko erabat eraginkorra dala ziurtatu deusku, eta urdail-leko ultzerak ondoeza ekarten badeusku, erremedio honegaz probatu geinkela: belarmintzaren zukua limoi bigaz eta ezti apur bategaz nahastu. "Ez da txantxa. Ultzera hori edanez osatu jakon bat eza-gutzen dot nik".

Zuhaitz azpian

Bronkitisak edo katarroak jota bagabilz, oregano infusinoa edan geinke, ezti koilaratxokada bategaz. "Eta erlaxeteko?", galdetu deusagu. "Erlaxeteko, zuhaitz baten azpian jesarriten naz ni", erantzun deusku.

Gatzakaz eta minakaz jarraitu dogu, eta bedarren mundua oso zabala dala azaldu deusku. Eta intuizino apur bat eukitea be komeni dala. Eztarriko mina jengibreagaz kentzen da, eta kolpeek eragindako hanturarako eta baltzunera-ko marihuana-alko-





hola baino hoberik eta naturalagorik ez dago. Era berean, etxean belarmintza eukiteko aholkua emon deusku, "erredurarako oso ona dalako".

Bedar gehiagoren ganean egin dogu berba, etxeko botikinean danetarik egotea gura dogulako. Zerrendea amaituezina da: ereinetza eta oreganoa, urdaileko pisurako; azeri-buztana eta asunak, toxiak kanporatzeko; untxi-belarria izeneko bedarra, ebagiak orbaintzeko... Bestalde, gure inguruan odol-pikoak kentzeko gauza dan bedarra hazten dala esan deusku, baina ez dala izenagaz gogoratzten. Prozedurea oso ortodoxoa ez dala iruditu jaku. "Bedarra boltsikoan sartu eta hantxe itxi behar da sikatzten". Autosugestioa izango ete da?

Sasoiko bedarrak mendian hartzen ditu Emilianok; eta sasoikoa ez dan bateren bat behar badau, hori bedar-dendan erosten dau. "Erabat fidagarriak dira". Tratamentua lau, sei... egunean hartu behar dala aitatu deusku; eta ez hiru edo, bost egunean... Zenbaki bikoitiak zerikusia dauen gauzea da; sinisteakaz. "Eta gatxaren arabera, infusinoa goizez edo gauez hartu behar dogu: katarorako infusinoa, gauez; eta ultzerarakoa, goizez".

Medikuntza modernoaren aurka ez dagoala esan deusku sondikoztarrak, "aurrerapausu itzelak emon dira". Baina kimika gehiegi erabiltzen dala, eta berak bere bedarrakaz jarraitu gurago dauela. "Naturalagoa da. Hainbeste kimikak ez gaitu inora eroaten".

Hemen heziketa lana da

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Laritate Heziketa eta Biganen Irakasuntzarako Ikastetxea

Uztzagaz Itzala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

TURNO JARDUNALITZA | **GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL

Unexio Q
kalitate-kudeaketaren euskal saria
lortzen duen LHko
(buzkako lehenengo ikastetxea)

Gure taller eta laborategiak ezagutzera etorri
ATE IREKIEN JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
- Diseinua fabrikazio mekanikoa Goi maila (2.000 ordu)
- Produktzioaren programazioa Goi maila (2.000 ordu)

KIMIKA

- Ingurumen-kimika Goi maila (1.400 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak Goi maila (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta informetika sistemak Goi maila (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa Goi maila (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Gehi-izuziak, onkorrak
Auzokoren berronaketa
Mantentze garbi-izuziak
Bulegoak eta lokalak
Orra amaitzeko garbikerak
Ikastetxeak
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

lurrindegia **MAMEN** mertzeria

Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

GARAIOLTZA, S.A.

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

**MARMOLGINTZA
GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERIAK



Ugaldeguren 1 ind. 10-8 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63



**KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA**

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 34 29 56

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**



MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL.FONO: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik



**Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA**

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32



Diskotekarik handiena

Espainiako Gorteek ez dute Sinde ize-
neko legea aurrera atera. Legeak egileen
jabetza intelektuala babestea zuen hel-
buru, eta Angeles González-Sinde Kultura
ministroak musika edo pelikulak doan
deskargatzeko aukera ematen duten
webguneak ixtea proposatu zuen. Izuga-
rrizko eztabaida sortu da horren ingu-
ruan: batzuen ustez, ordaindu behar da
beste batzuen lanaz (filma zein kanta)
gozatzeagatik; beste batzuen iritziz, or-
dea, zilegi da artxihoak elkartrukatzeko
aukera izatea. Hala ere, musikari dagokio-
nez, erdibidean dagoen konponbidea
eskaintzen du Spotify aplikazioak.

Programa horrek Interneten bidez jar-
tzen du musika entzungai, eta hori sortu
duen enpresa suediarrek Universal Music,
Sony BMG, EMI Music eda Warner Music
diskoetxeekin sinatu ditu hitzarmenak,
baita zigilu independente batzuekin ere.
Beraz, erabiltzaileak hainbat kanta ditu
eskura. Internautek abestien zerrendak
osatu eta euren artean partekatu ahal
dituzte. Zenbait era dago webgune hone-
tan kanta bilatzeko, esate baterako urte,
artista edo diskoaren arabera.

Programa doan deskargatu eta gero,
lau modu daude aplikazioa erabiltzeko.
Lehenengo biak ("Free" eta "Open") doan
dira, baina batzuetan publizitate-tarte
bat entzun behar izango da. "Free" horre-
tan sartu ahal izateko, Spotify-en erabi-
ltzaile baten gonbidapena jaso behar

dugu. "Open"ari dagokionez, ez da gonbi-
terik behar, baina hilean 20 ordutan baino
ezin da entzun.

Ordaintzeko aukera

Musikazaleren bat ordaintzeko prest
badago, beste bi era daude Spotify-a era-
biltzeko. "Premium" erabiltzaileek kanta
entzuteko aukera izango dute goi-maila-
ko kalitatean, horiek plazaratu baino
lehen. Gainera, ez dute publizitaterik
entzungo eta musika-katalogoa sakelako
telefonoan ere izango dute entzungai.
"Unlimited" erabiltzaileak antzekoak dira,
baina horiek ordenagailuetan besterik ez
dute musika entzungo. Nabigatzaileek
-ordaintzen dutenak, nahiz doan sartzen
direnak- edozein herritan erabili dezake-
te Spotify, baina izena ematea soilik leku
batzuetan da posible, Espainian eta Fran-
tzian besteak beste.

Aplikazioa 2006an sortu zen, eta
2008an eta 2009an zabaldu zen mundu
guztira. Ia edozein kanta topatu daiteke
Spotify-ean, baina ez guztiak. Izan ere,
musikari batzuek -Led Zeppelin, AC/DC,
The Beatles edo Pink Floyd taldeak, adibi-
dez- ez zuten webgune honetan parte
hartzea onartu. Dena dela, enpresa sue-
diarrak gogor egiten du lan katalogoa
"ahalik eta handiena" izateko.

Aplikazioa deskargatzeko:
www.spotify.com

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Zipiri!
–Egun on Luki! Zer barri?
–**Pentseu joat** 2011rako eslogana.
–Zein dok Luki?
–Akarra askatu! Hau da: urte zaharreko ohitura txarrak eta ezinikusiak uxatu eta barrian hasi zerotik.

–Joino! Zelan dok hori Luki?
–Ba, juduek Yom Kippur edo espiazino-egunean ospakizun berezia egiten eben. Ospakizunaren helburua zan, besteak beste, Israeldarren pekatuak garbitutea. Jai eguneko une nagusia edo bereziarena aker bien errittoa zan, eta geuk be antzerako zeozer egin beharko geunke.

Adardunetariko bat Yahve-rentzat zan eta bestea Azazel-entzat –demoninoa- edo dan izakiarentzat-. Yahve-ri oparitzeko akarra sakrifikau egiten eben, espiazino opari-gai legez. Azazel-i jagokon akarrari, oster, ez jakon lepoa moztan. Aaronek ezartzen eutsazan eskuak buruaren gainean eta autortzen zituan israeldar guztien pekatuak, zeinak sinbolikoki aberearen gainera jausten ziran. Ondorik, basamortura bialtzen eben akar hori, aldean eroanik israeldarren pekatuak. Han ezin eutsoen kalterik egin israeldarren herriari.

–Baina Luki, nor izango leiteke Txorierri Aaronen ordezkua, akarrari eskuak buru gainean ipiniko leuskiozana?


–Iñaki Lezamako morroskoa, kasurako.
–Bestalde, Luki, Euskal Herrian basamortua topetako Bardeetaraino jo behar dogu.

–Bardeetara ezin eroan leike akarrak ze, han Espainiako militarrek ibiltzen dira tiro ariketak egiten.

–Orduan, nora eroan bizirik lagatzen dan akarra Luki?

–Txorierriren batera nik uste; hots, barkataderen batera, txoriak txorietara olgetan bizi diran lurraldera.

–**Gusteuko** jako zure ideia hau, Luki, gure Txori “amerikanea”ri be!



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



T. 94 447 8330
www.aisiahoteles.com

Paquete especial GOLF GASTRONÓMICO
Incluye: 1 circuito relax, comida con menú especial y un green fee para campo de 9 hoyos.



T. 94 454 0574
www.pandpderio.com

45€

por persona - IVA incluido



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Non dabilta
sortzen euskara
elkarte?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Futbol entrenatzaileentzako euskarazko liburu bi

Irabazlea:

Arantza Madariaga

Bakoren bazterra

Janariaren historia

Iñaki Suárez, sumillerra

Britainiar prentsaren magnateak, Lord Northcliffek, bere kazetariei esan ohi zien lau direla irakurleei luzaroko interesa pizten dieten gaiak: delinkuentzia, maitasuna, dirua eta janaria. Baina haietatik azkena baino ez da oinarritzkoa eta unibertsala. Delinkuentziak oso pertsona gutxi erakartzen du interesa; posible da dirurik gabeko ekonomia bat edo maitasunik gabeko ugalketa irudikatzea; ezinezkoa da, ordea, janaririk gabe bizitzarik izatea. Bidezko da, beraz, janaria munduko gairik garrantzitsuenetako delat baieztazea: jende gehienari ardura gehien diotena da, bere denborarik gehienena.

Hala zirikatzen digu Felipe Fernández Armestok, eta gonbidatzen gaitu, aikorlagunok, berak idatzitako *Historia de la comida* izenburuko liburua (*Los 5 sentidos* bilduma, Tusquets) berarekin partekatzea.

Urte berriari eman diogu hasiera, eta hurbil ditugu oraindik iazko urteari agur esateko jataldi eta ospakizunak. Jataldi horietan aukera izan dugu, ziur aski, beharbada orain ez hainbeste denbora gure mahaietan ez zeuden jakiak dastatzeko. Halako jakiak ez edukitzeko arrazoiak dira edo mundu berrikoak zirela, edo garraioa ez zela garatu urruneko jakiok



Felipe Fernández Armesto

dastatu ahal izateko punturaino, edo kontserbazio teknikak ez zirela behar beste garatu, edota beste kultura gastronomiko batekoak direla, gurearekin elkartzean kontsumo ohitura berriak sortzen dituztenak... Horiek eta beste xehetasun batzuk –oso interesgarriak, ene uste apalean– argitzen dizkigu Felipe Fernándezek ikuspuntu historiko batetik saiakera gastronomiko honetan. Harekin hainbeste gozatu ondoren, ezin nuen utzi zuekin partekatu gabe. On egin!

Etxeko sukaldaritza

Makarroiak barazki eta okeleagaz

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 300 g makarroi (egosiak eta hotzituak)
- Alberjinia txiki bat (dadotan ebagia)
- 50 g kalabaza (dadotan ebagia)
- Kipula bat (garbitua eta txikitua)
- Lau berakatz-atal (txikitua)
- 500 g tomate birrindua
- Tomate prijidu zurrusta bat
- 200 g haragi txikitua
- Oliba-orio zurrusta bat
- Gatza

Prestateko area:

Kazuela baten orio zurrusta on bat botako dogu. Kipulea, kalabazea eta berakatzak su ertainean ipiniko doguz, harik eta horreek bigundu arte. Alberjinia gehitu eta apur bat egingo dogu. Haragia botako dogu eta bost minutuan eukiko dogu egiten. Azkenik, tomate birrindua, gatza eta tomate prijidua gehituko doguz, eta minutu pare batean izango dogu egosten. Makarroiak gehitu eta su ezitan bost minutuan eukiko dogu. Kontuz eragin eta zerbitzatuko dogu.

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Irati-frekuentziaren bidezko liftinga
Fotodepilazioa
Belzteko Sunless teknika
Ozonoterapia
Terapeutika-masajea
Atzazalak apaintzea
URIBE KALEA, 6 ESKUMAKO LONJA - DERIO - T. 94 454 55 73

Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

Elikaduran adituak

Euskal herriko d-generazioa

aritz eta nagel
aikor! 2011ko urtarrilaren 20an

2011 | Urtarrila

L	M	X	J	V	S	D
3	10	17	24	31	7	14
4	11	18	25		8	15
5	12	19	26		9	16
6	13	20	27		10	17
7	14	21	28		11	18
8	15	22	29		12	19
9	16	23	30		13	20
10	17	24			14	21
11	18	25			15	22
12	19	26			16	23
13	20	27			17	24
14	21	28			18	25
15	22	29			19	26
16	23	30			20	27
17	24				21	28
18	25				22	29
19	26				23	30
20	27				24	31
21	28				25	
22	29				26	
23	30				27	
24	31				28	
25					29	
26					30	
27					31	
28						
29						
30						
31						

2011 | Urtarrila

2011 | Urtarrila

2011 | Urtarrila

Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- 3 Mariak / Arantza Urretabizkaia
- Errotik / Gotzon Barandiaran
- Joan: hartzak, erlojuak eta beste piztia batzuk / Patxi Zubizarreta
- Stand by me / Itxaro Borda
- Sumendiaren azpian / Malcolm Lowry

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Bob esponja medikuarenean (Bob Esponja) / Steven Banks
- Pirata ausartak (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) / Mixel Murua
- Rock kantariaren bahiketa / Pere Casals

MUSIKA

- Mikel Laboari ikasitako kantuak / Euskal kantariak
- Gau hotzenean ere / Olatz Zugasti
- Zuzenean bizitzeko gogo / Gatibu
- Herria / Kepa Junkera

Sudokua

	2		3	7		8	1
3		6		9			
			6				
	1					5	
				9	8		3
8	3			5	7		6
6							
		7	9				
				5			9

6	7	3	5	6	2	8	4	1
4	9	1	3	8	6	7	5	2
8	2	5	7	4	1	3	6	9
6	9	7	2	5	1	3	8	4
3	1	8	6	4	7	2	9	5
2	5	4	3	6	8	1	9	7
5	3	9	8	2	6	1	7	4
4	7	1	6	5	9	8	3	2
7	4	2	1	9	6	5	8	3
1	8	6	4	7	3	5	2	9

BAR RAFI

ESPEZIALTATEA: PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Diz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

Peñasko arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio

Tel: 94 452 0808

RAPA

MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpamayoristas.com>

Antzerkia eta filmak

Derio

- > Amador Ramos ipuin kontalaria. Otsailaren 18an, 18:00etan, liburutegian.
- > Umore gaua: Iván Pérez eta Alejandra Navarro. Otsailaren 25ean, 20:30ean, Gurea Aretoan. Sarrerak: 5 euro; bildutako dirua Gure Señeak elkarteari emango diote.

Zamudio

- > *Almuerzo en casa de los Wittgenstein*. Otsailaren 24an, Arriaga antzokian. Izena ematea: otsailaren 17ra arte.

Erakusketak

Derio

- > "Comprometidos con Anantapur", Vicente Ferrer Fundazioaren eskutik. Otsailaren 16tik martxoaren 14ra, kiroldegian.

Zamudio

- > Euskal mitologia. Otsailaren 7tik 19ra arte, liburutegian.

Hitzaldiak

Derio

- > "Fundazioaren lana", Vicente Ferrer Fundazioaren eskutik. Otsailaren 17an, 19:00etan, kiroldegiko Kultur Aretoan.

Lezama

- > "Kirol Prestaketa", Manu Gonzalezen eskutik. Otsailaren 4an, 19:00etan, Uribarri Topalekuan. Zorribike txirrindularien taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan. Otsailaren 17an, 20:00etan, Anguleri kultura etxean. Joseba Sarrionaindiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburua aztertuko da Jose Angel Irigarairekin batera.

Ikastaroak eta tailerrak

Zamudio

- > Umeentzako masajea, aitei zuzenduta. Izena ematea: otsailaren 21ra arte, udaletxean.
- > Mozorro tailerra. Otsailaren 26an, 11:30ean, liburutegian. Hiru urtetik gorakoentzat.
- > Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa. Izena ematea: otsailaren 25era arte, udaletxean.

Larrabetzu

- > Oinarrizko informatika. Otsailaren 1etik aurrera, martitzenetan, Anguleri kultura etxean.

Irteerak

Zamudio

- > Benidorm. Izena ematea: otsailaren 25era arte, udaletxean.

Lezama

- > Serantes eta Punta Lucero. Otsailaren 13an, Zorribike txirrindularien taldeak antolatua.
- > Udalaiz. Otsailaren 20an, Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Zamudio

- > Santa Ageda. Otsailaren 4an.
- > Sasimartxo. Otsailaren 27an, 08:00etan, Sabino Arana plazan. Arroeta taldeak mendi ibilbide bi antolatuta ditu.

Lehiaketak

Lezama

- > Txorierriko XIII. Ipuin Lehiaketaren sariak banatzea. Urtarrilaren 28an, 19:00etan, frontoian.

Derio

- > Rally klasikoaren 3. saioa. Otsailaren 5ean, 10:00etan, eskolako aparkalekuan.

Bestelakoak

Derio

- > Ama hizkuntzaren Nazioarteko Eguna. Otsailaren 21ean, 20:30ean, Gurea Aretoan.
- > Tokiko Agenda 21. Otsailaren 22an, 19:30ean, Larrabarri baserrian. DerioKOMunikazioaren eskutik.

Zamudio

- > Batzarra, Pazko jaiak prestatzen hasteko. Otsailaren 15ean, 19:30ean, udaletxean.

Lezama

- > Mozorro lehiaketa izena emateko epea: otsailaren 25era arte, liburutegian.

48195 LEZAMA Bizkaia

Certificado número: 36



S.A.T. LEGU
SERVICIOS JURÍDICOS Y DE REGISTRO

F.: 94 855 64 17 T.: 94 855 61 98

leke's jatetxea
Tel. 94 454 29 86
restaurantelekes@gmail.com
Santinami, 2. Zamudio. 48170

E GUNEKO MENUA CATERING WIFI GUNEAK
BAZKARI ETA AFARI BEREZIAK
(ALDEZ AURRETIK ESKATUTA)

LIBURUGENDA PAPERGENDA



ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak



Torrelarragoti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA



Gorbea kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

Patxi S.KOOP.
BANATZARRE OFIZIALA



Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Ebezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
☎ + faxa: 94 452 25 87
pabxiscoop@patxi.coop
www.patxi.coop




**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



www.itp.es



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

Oihala laster zabalduko da...

...Parte hartu!

Egin zaitez bazkide!

BAZKIDE EGITEKO:



Tel.: 634 401 580 (Alazne)



69 posta kutxa
48160 Derio



alegarreta@baserriantzokia.com



Txorierriko
Euskara Elkartek

